



Durango estazio zaharra botatzen
hasi dira, baina eraikina ez eraisteko
deiak ugaritu egin dira • 4. orrialdea

2018ko urtarrilaren 12a | 16. urtea | 704. alea
Durangaldeko astekaria

www.anboto.org

 **anboto**

TOKIKOM

Zornotzatik Saharara begira

Zornotzan bizi da Ouali Omar, Tindufeko errefuxiatu kanpamentuan jaioako gazte sahararra. Mendebaldeko Saharan bizi den egoera “amorruez” eta “inpotentziaz” bizi duela azaldu dio ANBOTOri • 2

Argazkilaria: Lehiar Elorriaga



Hamahiru egun Jon Barcenaren berririk barik

Berriz | Gaztearen berririk izanez gero 112ra deitzeko deia egin dute Barcenaren familiakoek 5.



◆◆◆ Urte berri on! ◆◆◆



ORAIN
ETXERAKO
ZERBITZUA

Barrenkalea, 28 | 946 817 918 | www.naturalkibelardenda.es

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Zornotzan bizi da Ouali Omar, baina Iruñean izan zuen lehenengo hartu-emaña Euskal Herriagaz. Zazpi urte gaz. Hala ere, ‘Oporrak bakean’ programaren bitartez irten zen lehenengoz Tindufeko errefuxiatu sahararren kanpamentutik, bost urte gaz. Andaluzian egin zituen bi uda, Ubriqueen. Orduango bizipenez, Mendebaldeko Saharako gatazkaz eta elkartasunaz hitz egin du ANBOTOK beragaz, Euskal Karabana Saharara abiatuko den atarian.

Zein izan zen zure lehen hartu-emaña Euskal Herriagaz eta euskaragaz?

Iruñean. Urtebete bizi izan nintzen han. Hala ere, Orozkon bizi izan ginen urteetan sakondu nuen harreman hori: euskara ikasi nuen euskaltegian eta euskal kultura eta folklorea ezagutu nituen. Bertso-tan ere murgildu nintzen. Horrek markatu egin ninduen. Zornotzara etorri aurretik Bermeon ere bizi izan ginen, hamar urte. Dena den, azken urtean hasi naiz euskaraz gehiago berba egiten, hemengo egoera politikoa ezagutzen...

Aljeriako sahararren errefuxiatuen kanpamentuetan jaio zinen. Nolakoa da han bizimodua?

Urteekin asko aldatu da. Orain, Aljeriara, Mauritaniara, Malira... joaten dira asko, jeneroa ekarri eta saltzeko. Askok garatu da ekonomia, eta igartzen da bizimoduan. Jaiki, erre-zua egin, tea hartu eta lanera joatea, hori da egunerokoa. Administrazio publikoan —abokatu edo irakasle moduan, garbiketa lanetan, arma-dan...—edo arropa zein janari-denda partikularretan lan egiten dute; abeltzaintzan ere bai. Esan behar da bertan jaten denaren %99 kanpotik datorrela. Ekonomiaren hedatze horrek, baina, laguntzen murrizketa ere ekarri du. Urte eta erdi da ez noala bertara, baina 2015ean urtebete egin nuen han. Ez dago asko egiteko. Etorkizun argirik ez dago. Oso lasaia ere bada. Bake handia dago. Txikitako toki baketsu baten oroitzapena eskatuz gero hura datorkit gogora: leku babesgabea, egoera klimatologiko oso latzekin...

Oraintxe dago martxan sahararrei bideratzeko jakiak batzeko kanpaina. Tonak eta tonak batzen dira, baina ez da nahikoa. Jaitsi egin da laguntza?

Denbora baterako ematen du. Elkartasun karabanetan batzen dena familien artean banatzen da, eta, lehen, bakoitzari gehiago egokitzen zitzaion. Baina, baliogarria da inertzia hori mantentzeko, ez gaitzaten ahaztu... Gure borrokari indarra emateko itzelezko erreminta da. Dena den, benetako laguntza estatuak ematen dute: Brasilek, Kubak, Espainiak, Italiak. Munduan beste hainbat gatazka ere badaude eta fokua apur bat desbideratu egin da. Interesak ere badaude horretarako: Espainiak ez du gura Mendebaldeko

“Umeak enbaxadore itzelak dira sahararron borroka edozein tokitara heltzeko”

“Saharakoa ez da arazo humanitarioa, politikoa baino”, eta bide horretan ere lagundu daitekeela gogoratu du Omarrek



Ouali Omar Heiba
Sahararra.
Tindufeko errefuxiatu kanpamentua (Aljeria)
| 1996

Sahararen gaia mahai gainean jarri. Bizi den egoeraren erantzule da eta oraindik esku hartzen du. Okupatutako gunetan jasaten dituzte gehien Espainiak hartutako politikak: batez ere, baliabide naturalei eta arma salmentari dagokienez.

42 urte dira sahararrek beraien lurraldetik ihes egin behar izan zutela.

Espainia, Maroko eta Mauritaniaren hiruko akordioaren eta Martxa Berdearen ostetik, Maroko eta Mauritaniaren artean banatu zuten lurraldea. Orduan hasi zen

gera, 1975ean. Sahararrek irteera bakarra izan zuten Aljeria. Biztanleriaren erdiak ihes egin zuen, eta han errefuxiatu. 1980an Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoa onartu zuen Mauritaniak, eta bakea sinatu zuen Fronte Polisarioagaz. Hala ere, gaur egun, Mendebaldeko Sahararen lurraldearen %75 Marokoren esku dago eta beste %25a Fronte Polisarioaren esku.

Milaka kilometro dituen harresiak banatzen du Mendebaldeko Sahara.

Arabia Saudi, Israel eta AEBen diruagaz eraikitako 2.720 kilometroko harresiak. Pertsonen kontrako zazpi milioi mina eta tankeen kontrako beste bi milioi daude bertan. Mina gehien duen eremua da munduan. Gainera, kontuan hartu behar da 15 urtez, egunean 24 orduz, bonbardatutako gunea dela eta hainbat lehergailu eztandarazi gabe daudela. 1991n su-etena sinatu genuen, baina gatazkak hor dirau, gerra ez da amaitu. 4.200 zauritu eta hildako eragin ditu harresiak.

Nola bizi duzu egoera hori?

Amorru handiagaz. Gatazka hor dago. Gune okupatuetan bizitako egoera ikusteak inpotentzia sortzen du. 15 urte daramatzagu erreferendum bati itxaroten, 42 urte familiak banatuta. Gune okupatuan zapalkuntza itzela da eta errefuxia-

tuen kanpamentuetan bizi duten egora oso latza da. Litekeena da nik estatu independente bat ez bizitzea, baina bide hori irekitzerik badugu eta beste batzuek horri jarraitzen badiote, nahikoa dut.

‘Oporrak Bakean’ programagaz irten zinen lehenengoz errefuxiatu kanpamentutik. Zeintzuk dira onurak?

Umeek beraien errealitatea ahazten dute bi hilabetez. Ez dituzte sufritzen han izaten diren 45-52 graduak. Elikadura hobea dute, higie-ne pixka bat, botikak, mediku-azterketak, irteerak, solasaldiak... Gainera, umeak enbaxadore itzelak dira, sahararron borroka edozein tokitara heltzeko ez dago ume bat baino bitartekari hoberik. *Oporrak bakean* programaren bidez jende asko lotu da Saharan bizi den gatazkara, borrokara, jende horrek guztiak asko lagundu dio gure borrokari. Hori da ekarpenik handiena dudarik gabe.

Zuk zeuk nola bizi zenuen esperientzia hori?

Bost urte nituela Tindufetik Ubrique (Andaluzia) joan nintzen uda pasatzera. Lehen bi asteak negarrez pasatu nituen. Ama eta familia falta nituen, ez nuen ezer ulertzen... zur eta lur nengoen hainbat gauzeekin: komuna, dutxa, igerilekuak. Baina, egokitzen joan nintzen. Esperientzia itzela izan zen. Oraindik harre-

mana dut Ubriqueko familia horregaz. Sortzen den lotura handia da eta urteetan mantentzen da.

Euskaldunek lotura estua izan dute beti Mendebaldeko Saharagaz?

Bai. Espainiako Estatuan sahararren aldeko elkarterik gehien batzen dira hemen, eta elkartasun handia dago. Hala ere, gurea ez da arazo humanitarioa, politikoa baino. Arazo politiko bat konpontzeko bidea ez da laguntza humanitaria, laguntza politikoa baino, eta horretan eragin daiteke. Azken urteetan igarri da aldaketa horretan. Itzela da munduko beste aldeko borroka batean murgiltzea. Baina, behin sartuta, ez dadila ahalegin guztia laguntza humanitariora mugatu. Iaz esan zuen Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak Europa eta Marokoren arteko arrantza eta nezakaritza-produktuen merkataritza-akordioa ezin dela Mendebaldeko Saharan aplikatu (2012an onartu zen), nazioarteko legeen kontra doalako: legeak kanpokoak da herri ez autonomo baten baliabide naturalak erabiltzea. Baina hori saihesteko bideak topatu gura ditu Europak. Marokok hartutako lurretan munduko fosfato erreserba handienetakoa dago, biziberritze efizientzia handienetakoa duen itsasoa eta abar.

Sahararrei elkartasuna erakutsi diete Elorrioko gazteek Lajwad elkartearen laguntzagaz

Aurten ere karabana solidarioa martxan dago, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuei laguntzeko elikagaiak biltzen

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Durangaldeko hainbat elkarte Sahararekiko elkartasun handia adierazi dute azken urte hauetan. Horren adibideetako bat Elorrioko Lajwad da. 2011z geroztik, Elorrioko elkarteak hainbat proiektu garatzen ditu urtean zehar, eta horietako bat herriko bi ikastetxegaz batera Saharara antolatzen duten bidaia da. Maku Florentino Lajwad elkarteak kideak jakitera eman duenez, ikastetxeek gaia lantzen dute urtean zehar, eta landutakoa abenduko bidaian bertatik bertara ezagutzeko aukera izaten dute.

Laguntza humanitarioan oinarritzen den proiektu honi esker elkarteak hainbat gauza egin ahal izan ditu Saharan: kirol eremu bat eta futbol-zelai bat, besteak beste.

Horrez gain, nekazaritza eskolatan aritu diren sahararrei ortuak ipintzen laguntzen diete Elorriotik joandako ikasle eta gainontzeko boluntarioek. “Bidaia hauetan lan egiten duenak gauza mordoak lortzen duela ikusten dugu, eta ikusgarria da basamortuan ortu berde eta zoragarri bat ikustea”, adierazi du Florentinok.

Bestalde, Tindufeko errefuxiatuen beharrak zerrendatu eta horiek asetzen ahalegintzen dira Lajwad elkarteak. “Familia bakoitzak beharrian batzuk ditu



Elorriarrak Tindufeko errefuxiatu kanpamentuan egon ziren.

eta horien arabera laguntzen ahalegintzen gara”, esan du Florentinok.

2011n elkartea eratu zenetik Lajwad indarra hartzen joan da Elorrion. Esaterako, aurtengo abenduan 50 pertsona inguru, horietatik 30 ikasleak, egon dira Tindufeko errefuxiatuen eremuan. “Gazteek horrelako bidaia egitea oso

garrantzitsua da, bidaia hauek oso aberasgarriak dira-eta. Bertan bizi den esperientzia azalekoa den arren, egoerak oso hurbilekoak bilakatzen dira”, bukatu du Maku Florentinok.

Euskal Karabana
Herriko ikastetxeekin batera an-

tolatzen duen programagaz gain Euskal Karabana ere bultzatzen du Lajwad elkarteak eskualdeko beste hainbat elkarte eta herrirekin batera.

Esaterako, Tindufen errefuxiatuta dauden sahararrei laguntzeko elikagaiak biltzen dabiltza egun hauetan Durangaldean.

Erremata egingo dute garaitarrek San Anton egunez

GARAI • MARKEL ONAINDIA
Tradizioa, jaia eta elkartasuna batzen dituen ekitaldia da Erremata, garaitarrek urtero San Anton egunez egiten dutena. Datorren eguaztenean, hilak 17, batuko dira berriro, baserriko produktuen enkantea egiteko. Batzen duten

diruaren zati bat elizaren beharretarako izan ohi da, eta bestea ongintzarako. Aurreko urteetan, Caritas elkarteari eman diote.

12:00etan meza egingo dute lehenik, eta horren ostean hasiko da enkantea. Barazkiak, arrautzak, pastelak, txorizoak... inguruko baserritarrek hainbat produktu eramango dituzte. Gero, jai-giroagaz jarraitzeko, nagusien bazkaria egongo da; hilaren 14a da apuntatzeko epemuga.

Mañariko Hontza museoak ale berriekin hasi du urtea

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO
Uruguako lagun baten ekarpenari esker hainbat espezieren ale berriei aberastuko dute museoak eskaintza aurrerantzean. Guztira, 18 ale berri gehitu dituzte, museoak kideek jakinarazi dutenez: Txori eta ugaztunen garezurrak,

itsas ornogabeak, askotariko txorien arrautzak eta arrain buruak jaso dituzte, beste hainbat aleren artean.

Gero eta bisita gehiago jasotzen ditu museoak. Esaterako, aste honetan Sestaoko Albiz eskolako klase bateko ikasleek bisitatu dute.

Urren hil zutenak gazte talde antolatu bateko parte diren probarik ez dutela dio Beltran de Herediak

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO
Estefania Beltran de Heredia Segurtasun sailburuak asteon adierazi duenez, Ertzaintzak “ez dauka identifikatuta” delituak egitera bideratuta dagoen gazte talde antolaturik. Bai onartu du Bizkaian azken asteetan izandako zenbait delitutan, tartean Ibon Urrengoetxea zornotzararen hilketan, parte hartutako gazteek elkar ezagutzen zutela, baina hori “antzerako tokietatik ibiltzen direlako” gertatzen dela azaldu du. Miñanon (Araba) hedabideen aurreko agerraldi

Urrenen hilketagaz lotuta 13 eta 16 urteko gazte biak Gipuzkoako eta Bizkaiko zentro banatan sartu dituzte

Azken asteetan izandako delituetako gazteek elkar ezagutzen dutela onartu du. “Antzerako tokietatik ibiltzen direlako” da

batean eman ditu azalpen horiek Beltran de Herediak.

13 eta 16 urte
Ibon Urrengoetxea zornotzarra iazko abenduan hil zuten, Bilboko kaleetan. Lapurreta egin ziotenean jasotako kolpeen ondorioz zendu zen. Hilketaren horregaz lotuta, asteon 13 eta 16 urteko gazte bi identifikatu ditu Ertzaintzak. Gazteenak 13 urte ditu eta ezin dute auzipetu, 14 urte baino gutxiago dituelako. Gazte hori Bizkaiko Foru Aldundiaren ardurapean geratu da eta Aldundiaren barruko zentro batera eraman dute, EITBk informatu duenez. 16 urteko gaztea, aldiz, Gipuzkoako zentro batean sartu dute.

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

IURRETAKO GOIURIA
IKASTOLAKO GURASO
OHIAK ALKARTZEKO
BATZAR DEIA

NOIZ:
2018 urtarrilaren 19an

NON:
Iurretako IBARRETXE K E

ORDUA:
19:00etan 1.Deia
19:30etan 2.Deia

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.
Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.
Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.
Pertsonalizatu, zure herria aukeratuz.

DESKARGATU DOAN !

Jon Barcena Urrunagako urtegian egon litekeela adierazi du Beltran de Herediak

Baten batek gaztearen kokapenaren informaziorik balu 112ra deitzeko eskatu du familiak

BERRIZ • J. G. / M. Z.

Abenduaren 30etik ez dago Jon Barcena berriztarraren berririk eta, asteon, Estefania Beltran de Heredia Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuak 19 urteko gaztea Urrunagako urtegian egon litekeela adierazi du. "Zantzuak ikusita, aukera handia dago Jon urtegian egoteko. Hala ere, gorpua agertu arte itxaropena dago", nabarmendu zuen sailburuak eguaztenean. Hori horrela, Ertzaintza Urrunagako urtegian miaketa egiten dabilela jakitera eman zuen Estefania Beltran de Herediak.

Bestalde, berriztarraren familiak Jon aurkitzeko laguntza eskatu die azken egunotan herritarrei, eta baten batek bere kokapenaren informaziorik balu 112 zenbakira deitzeko eskatu du ohar bidez.

Gaztearen familiak dioenez, edozein informazio garrantzitsua izan daiteke Jon aurkitzeko, eta aztarna edo informazio berriek ikerketa bideak ireki ditzaketela uste dute.

Gaztearen berririk ez

Gabon zahar bezperan gazte talde bat Gorbeia mendira abiatu zen. Ertzaintzak azaldu duenez, desagertuta dagoen 19 urteko berriztarr txarto sentitu zen igoeran, eta buelta ematea erabaki zuen. Kotteetara itzultzerakoan gaztea falta zela ohartu ziren lagunak.

Harrezkero, 19 urteko gaztearen bila dabilta. Lau egunez Gorbeia mendian ehunka



JON BARCENA

boluntario eta larrialdi zerbitzuetako hainbat profesional gaztearen bila ibili ziren, baina ez zuten haren arrastorik aurkitu.

Urtarrilaren 3an, bilaketak aldaketa nabarmena egin zuen; gaztearen dokumentazioa parketik kanpo aurkitu zuten, Legutio inguruan, hain zuzen. Hori horrela, Urrunagako urtegian hasi ziren gaztearen bila, urpekarien laguntzagaz.

Hilaren 4an, berriz, Jon Zubiaga Segurtasun sailburuordeak bilaketa operazioaren inguruko datuak eman zituen, eta Gabon zahar arratsaldean lekuko batek gaztea urtegiaren inguruan ikusi zuela adierazi zuen. Gainera, Jon Barcenaren giltzak eta diru-zorroa aurkitu zituzten txabola baten inguruan, eta gaztea han egon ahal izan zela gaineratu zuen sailburuordeak.



Lau egunez Gorbeia mendian ibili ziren gaztearen bila.

Biharamunean, urtarilaren 5ean, Ertzaintzak amaitutzat eman zituen gazte berriztarra Urrunagako urtegian aurkitzeko urpekari-ekin egiten ari ziren miaketa lanak. Hala ere, ikertzen eta ur-azaleko

behaketa egiten jarraituko zutela jakitera eman zuten.

Orduz geroztik, ez da Jon Barcenaren arrastorik izan. Hala ere, norbaitek berririk balu 112ra deitzeko deia egin du gaztearen familiak.

Gaztelekua martxan, ekintza bandalikoek gabonetako jarduna eten ostean

ZALDIBAR • J. G. / A. M.

Gabonetako egitarau berezia bertan behera utzi behar izan ostean, martxan da berriz ere Gaztelekua. Ekintza bandaliko-koen ondorioz, kaltetuta geratu ziren bertako azpiegiturak, eta hori dela-eta, ez zen gabonetako programa egiten jarraitu. "Zerbitzua bera martxan jarri ahal izateko, atondu egin behar izan genuen guztia; egoera horretan, ezinezkoa zen egitaraua aurrera eramatea", adierazi du Arantza Baigorri alkateak. Oraindik ez dute kalkulatu zenbat diru ordaindu beharko duten kalte materialak konpontzeko. Hala ere, gutxi barru egingo dutelakoan daude.

Azken hilabeteetan horrela-ko zenbait ekintza bandaliko gertatu dira eta, alkateak esan duenez, horiek ikertzeko eta neurriak jartzeko Ertzaintzagaz berba egin du udalak. "Ikerke-

Ez dute kalkulatu zenbat diru ordaindu beharko duten kalte materialak konpontzeko

tan urrats sakonak ematen ari dira ekintza bandaliko hauen atzean nortzuk dauden jakiteko", esan du alkateak.

Osakidetza aurten ere ez duela Osasun Zentro berria egingo salatu du EH Bilduk

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandion Osasun Zentro berria egiteko proiektua eginda dago 2012tik, baina oraindik ez da gauzatu eta aurten ere ez da egingo. Horrela iragarri du EH Bilduk. Eba Blanco legebiltzarkideak egindako galderaren erantzuna jaso dute. "Aurrekontuetan ez dagoela horretarako kontu-sailik izan da erantzuna", Blancoren esanetan. Osakidetza eta Osasun Saileko arduradunak bizilagunei "adarra jotzen" ari zaizkiela deritzo.

Gaur egun Otxandioko osasun zentroa hartzen duen eraikina 50eko hamarkadako da. Urtzi Armendariz Otxandioko alkatearen ustez, "zaharkituta dago eta irisgarritasun aldetik arazoak ematen ditu". Gainera, "umeen jaiotza tasa handitu egin da eta ez dago pediatria zerbitzurik", gehitu du Armendarizek.

Udalak eraikin berria egiteko lurzorua eskuratuta eta egokituta du; Gaztetxe aurrean dagoen orubea. Legegintzaldi hasieratik hainbat batzar izan dituzte Osakidetza ordezkariekin. "Udaberrian Osi Arabagaz -Osakidetza berruko erakundea- egindako batzar batean osasun zentro berria egitea lehentasuna zela esan ziguten".

20

urtarrilak

11:00etan idazkaritzan

ludoteka zerbitzua

ATE

IREKIAK

zatoz gure ikastetxea ezagutzera

T.94 681 67 76 / dorleta.arzalluz@sanantonio.eus

SANANTONIO

IKASTETXEA

Irakasleon Kooperatiba

DURANGO/Balbino Garitaonandia 3

HAZIA

HEZIZ

Udalak 1,2 milioi euro ordainduko ditu Zelaieta berrantolatzeako proiektuan

Gobernu Taldearen aldeko botoekin onartu zen, eta aurrekontuko inbertsio handiena da.



Zelaieta oinezkoentzat izango da obraren ostean.

ABADIÑO • J.G./A.M.

Zelaietako berrantolaketa 2018ko aurrekontuetako inbertsioen ataleko diru-atalik handiena eramango duen proiektua da. 1,2 milioi euro ordainduko ditu udalak bi urtean.

Alkatearen berbetan, “urteetan egin den aldarrikapen historikoa” da abadiñarrentzat, eta urteetan geldi egon den proiektua izan ostean, 2018an martxan jarri ahalko da. Bestalde, aurrekontuetako

beste bi inbertsiorik indartsuenak Trañapadurako zubi berriaren eraikuntza (400.000 euro) eta trenbide zaharraren espazioa atontzeko obrak (120.000 euroko inbertsioa) dira. Atontze obra horiek urtea

amaitu aurretik hastekoak ziren, baina atzeratu egin dira. Lan horiekin batera, 120 auto hartuko dituen aparkalekua egingo dute geltokiarren ondoan. Auzokideentzat, tren hartzera doazen bidaiarientzat zein eskolara lanera doazenentzat zerbitzua eskainiko duela esan du Navarro alkateak. Hala ere, aparkaleku arautua izango dela iragarri du. Proiektu honetara 120.000 euro bideratuko ditu udalak. Navarrok argitu duenez, ur-zurrustak ez ditu ETSk jarriko, udalak baizik.

Abenduko osoko bilkuran onartu zuten 2018rako aurrekontu proposamena, Gobernu Taldearen (Abadiñoko Independienteak eta EAJ) aldeko botoekin; EH Bilduk, ostera, kontra bozkatu zuen. Mikel Urrutia zinegotziak “negoziatzeko borondate falta” salatu zuen ple-noan bertan.

“Muntsaratz ahaztuta”

Koalizioaren ohar batean azaldu-takoaren arabera, aurrekontuak “elektoralistak” dira. “Diru publikoagaz kanpainan ari dira; zergatik

Aurrekontuko 400.000 euro Trañapadurako zubi berriaren eraikuntzarako bideratuko dira

Gobernu Taldearen aldeko botoekin onartu dituzte 2018ko aurrekontuak

egin inbertsio denak 2018an arrapaladan?”. Horrez gainera, hainbat gabezia dituztela salatu dute. “Muntsaratz lotarako hiri bilakatzaren ari da eta berandu baino lehen aldatu beharko litzateke egoera hori; 1.055.000 euroez gainera, soberakinetak dirua erabili dute, eta ez da proiekturik aurkeztu auzoarentzat”. Bide batez, aurrekontuen eztabaidan parte hartzeko aukera ukatu zitzaizela salatu dute. “Alkateak aukera hori aurrekontuen inguruan beraiekin hitz egiteko konfiantza erakusten diogunean izango dugula erantzun zigun”, dio koalizioak oharrean.



LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK

LANBIDE K.	IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK			
17482707 / 17482715	Erakundeetan mendeko pertsonentzako jardueren antolamenduan laguntzea (UF0128)	70	2018/01/18
17482708 / 17482716	Higiene- eta elikagai-arretako esku-hartzeak erakundeetan (MF1017_2)	70	2018/02/19
17482709 / 17482717	Arreta soziosanitarioko esku-hartzeak erakundeetan (MF1018_2)	70	2018/03/19
17482710 / 17482718	Mendeko pertsonen animazio soziala erakundeetan (UF0129)	30	2018/04/30
17482711 / 17482719	Erakundeetan dauden mendeko pertsonen eguneroko jarduerak mantentzea eta hobetzea (UF0130)	50	2018/05/14
17482712 / 17482720	Erakundeetan dauden mendeko pertsonen komunikatzeko teknikak (UF0131)	50	2018/06/04
17482713	Erlazioa, komunikazioa eta behaketa mendeko pertsonarekin eta haren ingurunearekin (UF0124)	80	2018/03/21
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
17482701	Sistema mekanikoen muntaketa eta konponketa (UF0456)	70	2018/04/24
17482730	Sistema robotikoen eta ikusmen-sistemen muntaketa eta abiaraztea equipo ondasunetan eta industria-makinetan (ROBOTIKA) (UF0461)	90	2018/04/23
17482704	Txirbil-harroketara bidezko mekanizazio-prozesua (TORNO Y FRESA) (UF0881)	80	2018/01/25
17482705	Txirbil-harroketara bidezko mekanizaziorako CNC programaren egiaztapena eta optimizazioa (UF0882)	70	2018/03/06
17482644	Soldadura karbono-altzairuzko xafia eta profilez estalitako elektrodoekin eta oinarritzko elektrodoekin (UF1624)	90	2018/02/21
17482648	Hodiak fabrikatzeko planoen interpretazioa (AUTOCAD) (UF0494)	50	2018/02/08
17482646	Hodietako garapenen marrazketa (UF0495)	40	2018/03/06
INSTALATZEA ETA MANTENTZEA			
17482729	Linea automatizatuen sistema mekanikoak, pneumatikoak eta hidraulikoak (UF0624)	70	2018/01/22
17482702	Linea automatizatueta funtzionamenduaren programazioa eta kontrola (UF0626)	70	2018/02/22
PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK (LANGABETUAK)			
17482639	Ekipo industrialaren mantentze-lanak eta muntaketa mekanikoa (enpresan praktikak) (IMAQ0108)	510	2018/01/22
17482634	Komunitate-dinamizazioa (enpresan praktikak) (SSCB0109)	490	2018/01/15
17482636	Elektrodo estali bidezko arku elektrikoak soldadurak egitea (MF0099_2)	400	2018/02/05

Informazio eta izen ematea:

www.lanbide.euskadi.eus (Prestakuntza, Kodea)

www.fpzornotza.com (Lanerako formakuntza ikastaroak)

OHARRA: Taldeak sortu ahal, hasiko dira ikastaroak. Beraz, datak orientagarriak dira



Tfnoak: 94 403 55 99 / 94 673 02 51

e-maila: ikasi@fpzornotza.com / maranburu@fpzornotza.com

Eskolarako eta osasun zentrorako irisgarritasuna hobetuko dute

Aurrekontuetan 300.000 eurotik gora gorde dituzte zeregin bietarako

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Abenduan 2018rako udal aurrekontuak onartu zituzten EAJk eta EH Bilduk, aho batez. Guztira, 2.384.200 euroko zenbatekoa du aurtengo aurrekontuak, iaz baino %10 gehiago.

Inbertsioen atalean, eskolarako irisgarritasuna hobetzeko proiektuak du diru atalik handiena: 260.000 euro. Osasun zentrorako irisgarritasuna ere hobetuko dute beste 60.000 euro erabilita. Orain, anbulantziak ezin dira anbulatorioko ateraino joan, eta hori ahalbidetzea da lanen helburuetako bat.

Auzoak eta umeen parkea

40.000 eurogaz auzotarako argiteria eta bideak hobetuko dituzte. Aurten gauzatu gura duten beste hobekuntza bat umeen jolasgunearen gainekoa da. Zaharkituta geratu dela-eta, zelan moldatu daitekeen pentsatzen ari dira. Bitartean, aurrekontuetan 20.000 euroko atala gorde dute zeregin horretarako.

30.000 euroko beste inbertsio baten bidez, Herrikotik Iñusperainoko hoditeria aldatuko dute, gaur egun dagoenak arazoak ematen dituelako.

Sententziaren zain geratu dira Aiartzaguena eta gainerako lagunak

Protesta egiteagatik epaitu dituzte 50 lagun

IURRETA • MARKEL ONAINDIA

Sententziaren zain geratu dira epaiketa batean protesta egiteagatik epaitutako 50 lagunak, tartean Eñaut Aiartzaguena iurretarra ere bai. “Elkartasun eta protesta ekimen baketsu baten aurkako montaje absurdo eta erridikulu bat izan da”, dioenez.

Auzipetu bakoitzari bost hilabeteko kartzela zigorra eskatu die fiskalak

2015ean Madrilen izandako epaiketa batean protesta ekimen bat egin zuten akusatuek. Publikoan zirela, herri harresi bat irudikatu zuten, egun batzuk lehenago gertatutako gazteen atxiloteta batzuk salatzeko. Bada, protesta horregaz desordena egitea leporatzen die Madrileko auzitegi probintzialak. Martitzenean hasi eta amaitu zen epaiketa, eta auzipetu bakoitzari bost hileko kartzela zigorra eskatu die fiskalak. Marrazkilaria da Aiartzaguena, eta epaiketaren gastuei aurre egiteko, lamina bereziak ipini ditu salgai irribarrez.info atarian.



Bertako enpresako hainbat teknikari, mantentze lanetarako erabiltzen dituzten autoekin.

Bertako igogailuak: mantentze-lan profesionalaren aldeko apustua

Ospakizunetan daude Bertako enpresan. Hiru urte beteko dituzte laster, eta badute zer ospatu: Euskal Herrian mantentze-lanak egiten dituzten enpresen artean gehien hazi dena da. Bizilagunen komunitate askok erabakitzen dute mantentze-lan enpresa aldatzea eta Bertakoren aldeko apustua egitea. Urtean, batez beste, 200 komunitatek egiten dute 10-15 urte arteko eskarmentua duten teknikarien aldeko hautua.

Hori da, gainera, Bertakok duen baliorik handiena: teknikariak. Eurek sortutako enpresa da. Beste leku batzuetan lanean jardun eta hango baliabideak ikusita, enpresa berria sortzeko erabakia hartu

zuten pertsonak. Teknikari horiek 24 orduko zerbitzu erreala ematen dute; hau da, larrialdietan bakarrik barik, abisu guztiak kontrolatzen eta premiak betetzen dituzte, astelehenetik igandera, 24 orduz eta urteko 365 egunetan.

Dena den, eguneroko lan onari esker, egiten duten mantentze-lan onari esker, matxurengatik jasotako abisuak oso gutxi dira. Teknikariak egiten duten lan onak gerora dauden abisuen kopurua txikitu egiten du, nabarmen.

Benetako 24 orduko zerbitzua ematen dute, astelehenetik igandera, 365 egunetan

Euskararen garrantzia

Bertakok duen beste balio garrantzitsu bat euskararen erabilera da. Lehen momentutik euskaraz jarduten dute: aurrekontuak egiterakoan, komertzialen bisitatan, administrazioakoekin berba egiterakoan, kontratuak idazterakoan... Askok eta ondo baloratzen dute bezeroek euskararen erabilera.

Eta behin Bertako aukeratu ostean, bezeroek askatasun osoa dute nahi dutenean kontratua eteteko. Kontratu libreak egiten dituzte. Urtebetekoak. Bezeroak engainatu barik eta iraupen-konpromiso barik.

Ia hiru urteko ibilbidean, bezero askok Bertako aukeratu dute

eskaintzen dituen tarifengatik. Oinarrizko kontratua hileko 80 euro ingurukoa da eta arrisku orotakoa, hileko 100ekoa. "Prezio logikoak dira. Ez da normala Euskal Herriko enpresa batzuek 160 euro kobratzea arrisku orotako zerbitzuarengatik eta inguruko eskualdeetan prezio hau ia erdira jaitea, berton ditugun enpresa askok gure tarifa merkeagoak erabiltzen dituzte. Hori bai, Euskal Herri inguruan ditugun eskualdeetan", diote enpresakoek.

Larrialdi zerbitzua

Ia hiru urteko ibilbidea laburra da, baina nahikoa izan da lorpen arrakastatsuetara heltzeko: bezero guztiek dute igogailuaren larrialdi sistema telefonoetara lotuta eta guztiek dituzte LED argiak. Argi kontsumoa murrizteko automatikoki itzaltzen diren argiak, alegia.

Duela ia hiru urte sortutako enpresa izanda ere, bere zabal-kundea itzela izan da beste bailara eta lurralde batzuetara.

Bizkaian, Durangon eta Bilbon biltegiak ditu Bertako enpresak. Hori horrela, ematen duten zerbitzua oso azkarra da, profesionala eta gertukoa. 94-652 39 35 telefonoan eska daiteke informazioa eta aurrekontua. Beti ere, lehen berba euskaraz jasota.

Hobekuntza teknologikoak igogailu zaharretan

1- Telefono zaharretako instalazioak berritzen dituzte. Hori horrela, uneoro daude kontaktuan bezeroekin. Berehalako erantzuna ematen diete abisuei eta ezustekoei.

2- Igogailua modernizatzeko aukera ematen dute. Aukera ematen duten maniobretan igogailuak monitorizatuta dituzte.

3- Igogailu zaharrak modernizatzeko eta berritzeko elektronika osoa eta motorra aldatzen dituzte. Era berean, ordaintzeko erraztasunak ematen ditu Bertakok. Igogailu batek arazo asko ditutenean, ezinbestekoa da elektronika zati osoa aldatzea.

Eskaintzen ditugun zerbitzuak, hilean 100 eurotik aurrera

- 24 orduko zerbitzua abisu guztientzat.
- Pieza guztiak barne, orotariko zerbitzuan.
- Iraupen-konpromiso gabeko kontratua.
- Larrialdi telefonoa doan, instalazio guztietan.
- Bakarrik itzaltzen diren LED argien instalazioa doan.
- Efizientzia energetikoan oinarritutako ikuskapena

bertako
igogailuak | ascensores
Igogailuen mantentze-lanak

LARRIALDI TELEFONOA DOAN
www.bertako.eus
info@bertako.eus
946 52 39 35

24 orduko asistentzia abisu guztientzat 
Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak

Orotariko zerbitzua **100 €-tik aurrera**
Euskarazko zerbitzua



KURUTZIAGA IKASTOLA

URTARRILAK 27, ATEAK ZABALIK JARDUNALDIA

11:00etan, Harrera Haurtzaindegiko atarian.
Puzgarriak egongo dira

URTARRILAK 27, ARRATSALDEZ, "GAZTAINERRE" Plateruenean.

16:30tatik aurrera Tailerrak: Karetak, Marrazki eta aurpegi margotzea
18:00tan: Irrien lagunak
19:00tan: Tailerrak

Puzgarriak egongo dira

Sarrerak salgai aurretiaz ikastolako idazkaritzan astean zehar (Ikuskizuna + gaztainak: 3€)
eta egunean bertan Plateruenean (Ikuskizuna + gaztainak: 5€).
3 urtetik gorakoek ordainduko dute.

Gure hezkuntza proiektuak ikaslea du ardatz

Euskal Kultura eta Euskara ardatz hartuta, munduko beste kulturei irekia den proiektua.
Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun iraunkorra bultzatzen duena.
Eskola inklusiboaren aldekoa dena.
Gizarte justu eta iraunkorrago baten aldeko egitasmoa duena.

KURUTZIAGA IKASTOLAREN ESKAINTZA

0 urtetik 18 urte bitarteko eskaintza osoa.
Kirol eta aisialdi eskaintza zabala.
Jantokia: Ikastolan bertan egindako menua, bertoko baserritarrek ekoiztako produktuekin egindako janaria eta janari ekologikoa.

**Harrera pertsonalizatua
eta bisita gidatuak**

Tel. 94 620 08 22 • www.kurutziagaikastola.eus

Kalitatezko
euskarazko irakaskuntza





Kanpo espazioak berdegunea, tirolina, treneta eta beste hainbat elementu ditu.

BERDINTASUNA, NATURA ETA PARTE-HARTZEA

Lau urteko prozesu parte-hartzailearen ostean jolas-eremu berria estreinatuko dugu Kurutziagan

Orain lau urte ekin genion ikastolako kanpo espazioaren ordenazio berriaren proiektuari. Jolastokia Amesten deitu genion. Proposamen integratu, parte-hartzaile eta berritzaile bat osatzea zen helburua, ikasleen kolaborazioa eta iritzia kritikoa sustatuko zituen. Hiru fasetan gauzatu zen:

1. Behaketa

Ikasleak jolastokira irten ziren hainbat gai galdera bitartez lantzeraz, aldi berean ikasleen begirada kritikoa landuz: estetika, segurtasuna, eskaintza aukera, hezkide-

tza... Ondoren gelan bateratze-lana egin zen esandakoak horma-irudi batean batuz.

2. Hausnarketa

Behaketan jasotakoagaz jolastokian bertan elkartu ziren ikasleak gai konkretuei buruz hausnarrean aritzeko: ume txikiengaztat ba al dago leku aproposik? Neskek eta mutilek espazioaren erabilera bera egiten al dute? Non ibiltzen dira mutil gehienak eta non neskek?

3. Proposamenak

Aurreko bi pausoak beteta, zelako jolasto-

kia gurako luketen amesteari ekin zioten. Zer aldatu, zer jarri, zein ziren euren gustuko jolasak, kanpoan ikusi eta ikastolarako gurako luketen elementuren bat... Proposamenak horma-irudi batean jaso eta jolastokiko planoak eta maketak egin zituzten gero.

Hezkidetza erdigunera

Ikastolaren hezkuntza proiektuaren erdigunean dago hezkidetza eta gure amestetako jolastokian ere hala izatea gura genuen. Jakitun ginen kirol antolatua

oinarri dituen jolastoki batek, batez ere, futbola eta futbol-zelaiak zentroan jartzen dituen jolastoki batek, mutilen alde egiten zuela. Ikasleei galdetu genien ea non jolasten ziren eta non ez. Galdetegiaren emaitzekin mapeo bat egin genuen eta ikerketek diotena gure ikastolan ere gertatzen zela berretsi genuen: mutikoek erdigunea okupatzen zuten eta neskatoek ertzak.

Ametsetik errealitatera

Jolastokia Amesten prozesu parte-hartzailea ikastolako komunitate osoaren zatia izan da aberasgarria eta, bide batez, kanpo espazioaren ordenazio berriaren oinarriak fundamentuz ezartzen lagundu digu. Alde batetik neska-mutikoak aukera berdintasunean jolastuko diren espazio bat badaukagu. Bestetik, naturagaz harremanean, ikerketa eta esperimentazio gune bilakatu dugu jolastokia. Eta amaitzeko, halako eraldaketa bat egiteko ikasleen parte-hartzea ezinbestekoa dela ikasi dugu.



IRATXE TXINTXURRETA (arkitektoa)
eta KIMETZ MUNITXA (ingeniarria)

“Helburua da kanpo espazioa eta ikasgela ez daitezela bi eremu isolatu izan”

Iratxe eta Kimetz arkitektoa eta ingeniaria izateaz gainera, Kurutziagako gurasoak ere badira. Lau urte daramatzate buru-belarri ikastolako kanpo espazioaren eraldatze lanetan. Celia Imaz arkitektoa eta Ibon Agirre paisajista ere taldeko partaide izan dira.

Zelan sortu zen kanpo espazioa eraldatzeko proiektua?

Kanpo espazioaren eraldatzea lau urtez osatu dugun proiektua da. Proiektuaren oinarrian haur eta gaztetxoekin landutako Ikastola Amesten parte-hartze prozesua dago. Haur eta gaztetxoekin amets, beharrian eta nahiak jaso eta aztertu genituen bertan. Gurasoen eta hezitzaileen iritzia jasotzen ere saiatu gara. Hezitzaileena bereziki garrantzitsua izan da guretzat espazio horren kudeatzaileak eta erabiltzaileak baitira aldi berean. Eta azkenik, ikerketa lan horri hezkidetzaren ikuspuntutik

egindako hausnarketa garrantzitsua gehitu genion.

Zer ondorio atera zenituzten parte-hartze prozesu horretatik?

Proiektu honen aurretik kanpo espazioaren ohiko egitura genuela ikastolan. Espazioaren erdigunean kirol antolatuko zelaiak: futbola, futbito, pilotalekua eta saskibaloia, espazio gorrak eta pabimentatuak guztiak ere. Parte-hartze prozesuari esker baieztatu genuen periferiak jasotzen zituela jarduerarik aberatsenak: joko eta jolas sinboliko ez arautuak eta, batez ere, mutilek okupaturiko espazio zentralatik kanpo, neskatoen jolas eremua.

Eta zer da kanpo espazioaren eraldatze honez bultzatu gura dena?

Hainbat aspektu hartu ditugu kontuan. Batetik jolas librea sustatzea,

jolas sinbolikoa eta ez bideratua. Bestetik, parte-hartze prozesuan hain argi agertzen zen faktorea izanik, hezkidetzaren ikuspuntutik espazio zentralak jarduera anitzetarako prestatzea, guztiek berdintasunez gozatu ditzaten eta ez daitezen ohiko talde kirolen eremua izan.

Mendiak, errekatxoa, zuhaitzak... Natura ikastolan sartu dela dirudi.

Naturaren presentzia oso eskasa zen ikastolako jolas eremuan. Horregatik sortu gura izan dugu haur eta gaztetxoekin zentzumenekin esperimentatu ahal izango duten eremu bat, non urtaroen aldaketak zein elementu klimatologikoak esperientzia zuzenaren bidez bizi ahalko diren. Azken finean, helburua da kanpo espazioa eta ikasgela ez daitezela bi eremu isolatu izan, batek bestea elikatzea baizik.

Ostalaritza gida

anboto



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Durango



PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako etorbidea, 4 - DURANGO
Tel.: 946 030 300 - www.plateruena.eus
Bokatak, pintxoak... Azoka egunetan bertako produktuekin egindago menu berezia karpan. Giro paregabea!



Durango



KOBIKA JATETXEA
San Ignazio, 8 - DURANGO
Tel.: 946 810 003
Egile sukaldaritza eta tradizionala. Menu bereziak eta karta.



Durango



IBAIZABAL KAFETEGIA
Ibaizabal taldea, 2A - DURANGO
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.



Abadiño



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

Estetika gida

anboto



Ile-apaindegia



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO



Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA
Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491



Ana Camarero

Mikropigmentazioa

Makillaje iraunkorreko teknika da. Gainera, eguneroko makillajearen denbora aurrezten da, inperfekzio txikiak zuzentzen ditu, minbiziaren ondorioetarako soluzioak ematen ditu, eta segurtasuna ematen du, beti zoazelako apain.



Zenbat irauten du?

Bi urtera, asko jota, errebisioa egitea gomendatzen dut, mikropigmentazioaren egoera ikusi, eta errepaso bat behar den ala ez aztertzeko. Bestela, ez du mantentze-lan berezirik eskatzen. Gainera, minari dagokionez, oso eraman-garria da, krema anestesikoa erabiltzen dugu eta. Tratamenduaren aurretik alergia azterketak ere egingen ditugu.



Zuen zentroa zertan bereizten da beste zentroekin alderatzen badugu?

Especialistak gara, eta kalitate handiagoko lanak garatzen ditugu. Ezpainak betetzen ditugu, bekain hipererrealistak sortzen ditugu, eta Eye Liner metodoagaz begirada indartzen dugu. Horrez gainera, tresneria eta orratz onenekin egiten dugu lan, eta baita pigmentuen gama zabal eta fidagarri batez ere.

Informazio eta argazki gehiago
www.anacamarero.com/mikropigmentacion



Estetika zentroa



Ana Camarero

Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

%60eko deskontua
Presoterapia-ko 10 saio

300€ orain 120€

Urtarrilaren 11tik urtarrilaren 31ra

Goienkalea, 16-1. esk - Durango
Zentru ez-sanitarioa

Tel.: 946 817 380 - www.anacamarero.com



Harek denporak!

DANTZARI 'HIPSTERRAK', ASTARLOA ANAIEN OMENEZ

Ekintza kultural eta herri mugimendu ugaritan ibilitakoak dira Jose Antonio Azkorbebeitia abadiñarra eta Antton Mari Aldekoa-Otalarra iurretarra. Saltsa askotako perrexilak, inondik ere. Kasu honetan, biak elkarrekin dantzan topatu ditugu. 2001eko abenduan, Durangoko Azokaren testuinguruan ateratako argazkia da.

Astarloa anaia euskaltzailei omenaldi lez, banango zaha-

rra eskaintzea erabaki zuen Gerediagak egun haietan, eta Azkorbebeitia eta Aldekoa-Otalarra izan ziren plazara irteteko hautatuak. Elegante irten ere, amerikana eta txaketa dotoreak jantzita. Harek bai bizarrak, eta ez oraingo hipsterrenak!

Geroztik, egin ote dute dantzan berriro elkarrekin? Auzolanean bai, seguru elkarrekin ibili direla, gazte batzuk betirako dira-eta gazte. **M.O.**

Sei hankako mahaia

Goiztidi
Diaz Basterra
EAJ



EZINAHATZU...

Gabonak egun bereziak izaten dira eta aurtengoak bereziki, bereziak eta tristeak. Gure ingurunea elkartasunez kutsatuta egon behar lukeen egun horietan, tristura izan da bihotzak hartu gaituena.

Txikitatik erakusten digute zer dagoen ondo eta zer ez, eta irakaslerik gabe ere askotan konturatzen gara zer dagoen ondo eta zer ez. Bizia da pertsonak daukagun altxor baliotsuena. Bizitza, bizipoza, sentitzeko aukera, irribarrea... Guztiak dira altxorren osagaiak, baina nola da posible pertsona batzuentzat biziak horren gutxi balio izatea?

Urren hiltzorian utzi zuten kale gorrian, bere altxorrik baliotsuena lapurtu ondoren. Ezagutu ditugu ustezko erantzuleak, ezagutu ditugu beraien aurpegiak. Amorrua da guztiok sentitzen doguna. Legeak bere gorabeherak izango ditu, baina nahiz eta adin gutxikoak izan, gazteek badakite zer dagoen ondo eta zer ez.

Eta larria bada inori bizia lapurtzea, larriagoa da horren inguruan barre eta irainak egitea. Ez da bidezkoa ez, izugarritzko sufrimendua jasaten ari den familia batek oraindik ere erantzuleen irainen berri izan behar izatea. Nahi baino gehiagotan entzun dogu egunotan Zumarragako herriaren izena. Bertan daude jadanik inoren bizia edota askatasuna errespetatzen jakin ez duten gazte batzuk.

Ez dago Urreni bere altxorra itzuliko dion justiziarik, baina egin daiteke egin beharrekoa. Inork ez du merezi bere bizia lapurtu diezaiotela, inork ez dauka eskubiderik beste bati bere altxorra lapurtzeko. Ez ditugu ahaztuko, ez, aurtengo gabonak, ez dogu inoz ahaztuko, ez, gure laguna. Besarkada bat famili eta lagunei!

Durungaldea asteen

Erregenetan lortutako dirua La Otra Mirada elkarteari eman diote

Iurreta | Errege magoen desfilearen ostean banatutako txokolateagaz batu zuen dirua La Otra Mirada elkarteari eman dio Anderebidek. Senegaleko proiektu bi laguntzeko izango da dirua. Batetik, xaboia egiteko tailerra prestatu gura dute eta, bestetik, zereala apurtzeko eguzki-energiagaz mugituko den errota jarri gura dute martxan. Bestalde, Gabonetako merkatuan jasotako 1.400 euroak ere La Otra Mirada elkarteari eman dizkiote.

Mikel Irizarrek Gipuzkoako Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari kargua utzi du

Elorrio | Mikel Irizar elorriarrak Gipuzkoako Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari kargua utzi du, arrazoi pertsonalak direla-eta. "Pila gastatu" izana argudiatu du erabakia azaltzerakoan. Irizarrek ibilbide luzea egin du euskalgintzan, eta 2015ean instituzioetarako pausoa eman zuen, Gipuzkoako Foru Aldundian ardura hartuta.

7.913 sarrera salduta, "marka hautsi" du aurtengo edizioan Durangoko izotz-pistak

Durango | Inoiz baino bisitari gehiago eduki ditu aurtun Landa-ko Gunean egokitutako izotz-pistak, udalak prentsari bidalitako balorazioan dioenez. 7.913 sarrera salduta, "marka hautsi" du. 4.293 sarrera umeenak izan dira, 2.485 nagusienak, 148 elkarreetakoak eta 987 ikastaroetakoak. Abenduaren 29an arazo tekniko bat eduki arren, orokorrean erabiltzaileen nota altua jaso du instalazioak, 9,5ekoa. Horrela, antolatzaileek balorazio ona egin dute.



Sarek presoan eskubideen aldeko manifestaziora deitu du biharko

Durungaldea | Euskal presoan eskubideen alde manifestazioa egingo da bihar Bilboko kaleetan, Sare mugimendu herritarrak deituta. 17:30ean hasiko da Kasillatik, eta hurrengo lema edukiko du: *Elkarrekin aurrera egiteko prest gaude. Giza eskubideak, konponbidea, bakea.*

Durungaldean mobilizazioari bultzada emateko ekimenak egin dituzte herririk herri, eta joan zen domekan eskualdea zeharkatu zuten hainbat lagunek auto karabana bat eginda. Biharko manifestaziorako deialdia zabaldu zuten megafoniatik, eta, amaieran, Landako inguruetan, talde argazkia atera zuten guztiek batera.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



HEKi
HERRI KIROL KLUBA

Tel.: 656 782 552
heki.iurreta@gmail.com

f Heki Herri Kirol Kluba

Umeentzako erakustaldiak eta antolaketak
Urte barri on!

DIBA
KOOPERATIBA

Durungaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



Martitzenean jarriko dute Donien Atxa.

Berriztarrek nekazal olinpiadetan batuko dira urtarilaren 22an

Urtarrilaren 16an Donien Atxagaz tabernarik taberna ibili ostean emango diete hasiera San Antonio jaiari

2011n berreskuratu zituzten nekazaritza-olinpiadak Berrizen, eta orduz geroztik ekintza honek herriar ugari batzen ditu urtero-urtero. 19:00etan, frontoian, bost laguneko taldeetan batuta, zenbait proba egiten dituzte herriko gazte zein helduek. Hori horrela, animatzeko eta olinpiadetan parte hartzeko dei egin die Bego Madariaga zinegotziak berriztarrei. "Ekintza oso polita da, eta, ikusle izateaz gain, berriztarrek parte-hartzaile izatea gura dugu", esan du Madariagak.

Nekazaritza-olinpiada hauetan parte hartu gura dutenek urtarilaren 18a baino lehen eman beharko dute izena.

Olinpiadak hilaren 22an izango diren arren, Antonio Deunaren jaiak urtarilaren 16an hasiko dira, datorren martitzenean. Berrizen ohitura bilakatu den lez, aurtan ere tabernarik taberna eramango dute Donien Atxa. Os-

tean, 20:30ean, Olakueta plazan jarriko dute.

Jaietan zehar hainbat jarduera antolatuko dituzte. Barikuan, esaterako, sagardotegi ibiltaria egongo da eta, ondoren, odoloste jana egingo dute. Zapatuan, berriz, LA-telierreko dantzariak euren ikus-

2011n berreskuratu zituzten nekazaritza-olinpiadak Berrizko neguko jaietan

kizuna eskainiko dute eta, ostean, Luhartzek erromeria eskainiko du Olakueta plazan.

Hilaren 21erako, eskualdeko barazki eta fruitu erakusketa, artisau txokoa eta baserriko oilasko dastaketa antolatu dituzte.

Berrizko San Antonio jaiari urtarilaren 30ean emango diete amaiera. 19:00etan Donien Atxa kendu, eta 21:00etan afaltzeko batuko dira olakuetarrak.



Bentazaharreko Mutil Alaiak taldeak zuzeneko musikagaz bustiko ditu Berrizko kaleak, hilaren 18an, 19:00etan

Urtarrilak 14, domeka

10:00 Mendi bizikleta martxa - izen-ematea eta irteera Olakueta plazan. Izena ematea doan.

Urtarrilak 16, martitzena

20:30 Olakuetarrek ibilalditxo egin ostean, Donien Atxa altxatuko dute Olakueta plazan.

Urtarrilak 17, eguaztena

12:00 Antonio Deunaren baselizan meza.

19:00 Antonio Deunaren baselizan **Moon Fields** kontzertua.

Urtarrilak 18, eguena

19:00 Olakuetan kalejira - Bentazaharreko mutiko alaiak

Urtarrilak 19, barikua

19:30 Sagardotegi ibiltaria Ondoren, odoloste-jana Olakueta plazan.

21:00 San Antonio XII. pilota txapelketa - finalak. Olakueta frontoian

Urtarrilak 20, zapatua

11:00-14:00 / 16:00-19:00 Poni edo zaldiagaz ibilalditxo Olakueta plazan.

12:00 Lapsus Cabaret Zirkua. Olakueta frontoian

17:00 L'Ateliereko Breakers Dantzan. Olakueta frontoian.

18:00/22:00 Erromeria **LUHARTZ** taldeagaz Olakueta plazan.

19:00 Nesken frontenisa. Olakueta frontoian.

21:30 Kontzertua: We Ride eta Worth It (sarrera 6€/bazkideek: 4€)



www.berriz.org

**Berrizko Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez**



Berrizko jaiak 2018

Urtarrilak 21, domeka

11:00 Eskualdeko XXXVII. barazki eta fruitu erakusketa probalekuan.

11:00 Artisau txokoa frontoian.

12:00 Baserriko oilasko dastaketa Olakueta plazan.

13:15 Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeen ekitaldia Olakueta plazan.

Urtarrilak 22, astelehena

17:00/19:00 Barrakak merkeago (0,50 €-tan).

19:00 Askaria eta nekazaritza-olinpiada frontoian. (sarrera 1€)

ikuskizuna, txorizo ogitartekoa eta edaria (amaitu arte) .

Urtarrilak 23, martitzena

19:00 Donien Atxa kenduko da.

21:00 Olakuetarren afaria.

Urtarrilaren 25etik 29ra

LXII. Antonio Deuna Sari Nagusia



Luhartz taldeagaz dantza egiteko aukera edukiko dute berriztarrek, hilaren 20an, 18:00etan

Ekilibristak, malabaristak... badator zirkua Berrizera

‘Lapsus Kabaret’ izeneko ikuskizuna dakar sanantonioetara Ganso&Cia konpainia durangarrak; zirkua, musika eta umorea nahastuko dituzte ordubete inguruko saioan



Shakti Olaizola ekilibrista izango da ikuskizuneko partaideetako bat.

San Antonio jaietara zirkua etorriko da aurtten, Ganso&Cia taldearen eskutik. *Lapsus Kabaret* izeneko ikuskizuna eskainiko dute sei artistak zirkuko modalitate batzuk, musika eta umorea nahastuta. Hilaren 20an izango da ekitaldia, 12:00etan, pilotalekuan. Adin guztietarako egokia edo aproposa izango da, ume zein heldu, Gorka Gansok azaldu duenez. Ordubete inguru iraungo du.

Haria, umoretik

Iurretan bizi den Gorka Ganso izango da ikuskizunaren gidaria, klownaren paperetik aurkezle ibiliko dena. Txefo Rodriguezek zuzeneko musika eskainiko du tarte batzuetan, eta eurek biak izango

dira emanaldiaren haria josiko dutenak, lau artistaren erakustaldien artean agertuta.

Abadiñon bizi den Endika Salazar malabaristaren artea ikusteko aukera egongo da, adibidez. Shakti Olaizola kontortsionistak eta Garazi Pascual kable gaineko ekilibristak ikusleak harritzeko saiakera egingo dute, eta Gorka Pereirak malabareak eta ekilibrista tartekatuko ditu. Horixe izango da saioko seikotea.

Saio bereziak

Durangon errotutako konpainia da Ganso&Cia. Hainbat antzezlan sortu dituzte, eta herrian garatzen diren Maluta eta Topaklown jaialdien sustatzaile ere badira. *Lapsus*

Kabaret ez da biran daramaten obra bat, zirkuko adierazpenen erakusketa umoretsu bat baizik. Aukera sortzen denerako presatzen dute, zirku diziplinetan dabilen artistak gonbidatuta, lantzean behin batzuk. Horrek berezitasuna ematen dio saio bakoitzari. “Saio bakoitza desberdina da, taldea desberdina delako.

Abadiñon bizi den Endika Salazar malabaristaren artea ikusteko aukera egongo da, adibidez

Berrizko saioa ere aparta izango da”, esplikatu du Gansok. Umorea topatu gura duenak Berrizen edukiko du aukera, hilaren 20an.



Moon Fields bikoteak baselizan abestuko du.

Liburudenda
Amalur aldizkariak
papera opariak
Iturriza, 29 Berriz Tel.: 946 826 248

Ibai Ondo
Ferreteria · Burdindegia
Iturriza, 10
946 824 489
f 946 824 489
ferreteriaibaiondo@gmail.com
BERRIZ

HIERRROS RIEZU S.A.
burdinak eta metalak
Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131
Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net

pedro juan
J A T E T X E A
SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.682.62.46

ORLEGI TABERNA
Iturriza, 5 BERRIZ
Tel.: 946 824 828

Iturriza kalea, 9
Tel: 946 824 009
48240 BERRIZ
fonda TABERNA

Odei Arrizabalaga (Worth It): “Berrizko jendeak asko eman digu, eta bueltan eman ahal izatea itzela da guretzat”

San Antonio jaietan kontzertua eskainiko du herriko Worth It taldeak; lehen diskoaren birako despedida kontzertua izango da, etapa berri bati ekiteko

MUSIKA • MARKEL ONAINDIA

Urtebete pasatxo da Worth It talde berriztarrak *Closer* izeneko bere lehen diskoa kaleratu zuenetik, eta hasiberriaren grina horregaz, bigarren lanari begira daude dagoeneko. Erritmo bizia daramate, euren musikak bezala. Hori dela-eta, etapa bat zarratzeko aprobetxatu gura dute Berrizko San Antonio jaietan eskainiko duten kontzertua. Lehen diskoaren aurkezpen biraren despedida izango da. Hori egiteko, leku hoberik ez etxean baino. “Herriko jendeak asko eman digu, eta bueltan eman ahal izatea itzela da guretzat”, esplikatu du Odei Arrizabalagak, taldeko abeslariak.

Herrian, aurretik Hiltzegixe gaztetxean jo izan dute, eta orain Kultur Etxean arituko dira estreina-



Hardcore musika sortzen du Berrizko Worth It taldeak. Taldekide berria dute: Ander Aretxaga

Denak eszenatoki gainean egongo dira; taldekideak erdian, eta zaleak euren inguruan

koz. Formatu berezian gainera, 360 lez ezagutzen dena. Musikariak eta entzuleak, denak eszenatoki gainean egongo dira; taldekideak erdian, eta zaleak euren inguruan. Beraz, kontzertu gertukoa eta be- roa izango da. Elkarren gainean

amaitzeko arriskuaz galdetuta, “hori da gura duguna”, dio Arrizabalagak umorez. Horrela, Worth It-en kontzertuak emanaldi berezia izateko osagai asko edukiko ditu.

Hardcorea protagonista izango den gauean We Ride talde galiziarra ere igoko da taula gainera. Nazioartean ere mugitzen den taldea da, eta euregaz jotzea “plazer bat” izango dela nabarmendu du Berrizko taldeko abeslariak. Hilaren 20an,

Hardcorea protagonista izango den gauean We Ride talde galiziarra ere igoko da taula gainera

Behin grabazioa eginda, uda aurretik disko berria kalean egotea guraruko lukete

21:30ean hasiko da kontzertua. Sarrerak 6 euroan egongo dira salgai, eta Berrizko Kultur Etxeko bazkideek euro biko deskontua edukiko dute erosterakoan.

Uda aurretik kalean

Urte hasiera honetan joan gura dute grabazio estudioa Worth It-ekoek. Abestirik gehienak sortuta dituztela azaldu du Arrizabalagak; behin grabazioa eginda, uda au-

rretik disko berria kalean egotea guraruko lukete. Taldearen aurkezpenarako erabilitako *Closer* diskoaren ostean, lehen lan luzea izango da. Taldearen izaerari helduta, pieza labur eta arinak batuko ditu, baina “estiloa gehiago zehaztuta” ikusiko dela uste du abeslariak.

Horrez gainera, taldekide berri batek ekin diote etapa berriari. Izan ere, aurrerantzean Ander Aretxaga ibiliko da bateria-jotzaile.

CERAMICAS MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua Industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

ETXEBARRIA
ESTANKOA
Iturritza, 14
Tel./Faxa: 946 827 958
BERRIZ

COMERCIAL AGRICOLA BASERRI TRESNAK
Nekazaritzako eta lorezaintzarako makinen salmenta eta konponketa
Tel.: 94 682 40 87
Pol. Ind. Eitua, 66 - BERRIZ
www.baseritresnak.com

JAIObarnizatuak
Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu
Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

keinuu optometria zentroa
Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.
Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099
www.keinuoportmetriazentroa.com
● Optometrian teknika aintzindariak.
● Kontaktologia.
● Haurren ikusmena.
● Ikusmen terapia.
● Erreflexu primitiboak
● Syntonic fototerapia.
● SENA estimulazio neuroauditiboa.
● Orto-k.

BOUTIQUE LUISA
BEHERAPENAK ORAIN!
Ondo para jaietan!
Iturritza, 8 - BERRIZ
Tel.: 946 824 112

Azkonizaga
Ortuzar, 1 · Izurtza (Bizkaia) · Tel./Faxa: 946 810 652
azkonizaga@azkonizaga.com
www.azkonizaga.com

berdeago energy

2018ko
URTARRILAK
19, 20, 21

Eraginkortasun energetikoa

Mugikortasun jasangarria

Ingurumen berrikuntzak



berdeago nature

2018ko
URTARRILAK
27, 28

Elikadura ekologikoa eta km 0

Ekonomia soziala

Osasuna eta ongizatea

Ekintza sozialak



SARRERA DOHAINIK




LANDAKO GUNEA DURANGO

www.berdeago.com

ANTOLATZAILEA | ORGANIZADOR



BABESLEAK | PATROCINADORES





Bultz eta The Friday's Crew taldeen kontzertua gaztetxean

Punk gaua KONTZERTUAK

ELORRIO ::
Urtarrilak 13, 23:00etan

Bi taldeak elkarregaz egiten ari diren birako hurrengo geltokia Elorrioko gaztetxea izango da. Iaz kaleraturiko *Errai*akeko abestiak izango dira emanaldiko ardatza.

Urtarrilako agenda



12	“DURANGALDEKO ELKARTASUN KARABANA 2018” Gizarte-Ongizatea Saharar errefuxiatuen kanpamendurako Elikagaien Bilketa GALTZEN EZ DIREN bestelako PRODUKTUAK Nagusien etxean / Ibarretxe Kultur Etxea / HAZ-SAC / Herriko janari dendak “IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA” Bularretik Mintzora 17:00 Haur Hezkuntzako 3,4 eta 5 urteko gelakoak 18:00 Lehen Hezkuntzako 1eta 2. mailak
15	“IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA” Haurren irakurketa kluba “Paperezko hegoak” 15:45 DBH 1.maila / 1ºESO 17:00 L.H. 5 eta 6 mailak
17	“IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA” 17:00 XL irakurketa kluba
18	“BAKIXAKO JAI BATZORDEA” 21:00 Jaiei hasiera emoteko Donien Atxa jasoko da. Jarraian txokolatada. Emoixu Odol Elkarte 16:30 - 21:00 Odol emota (Maspe6)

Urtarrilaren 12an

BERRIZ zinema
‘Zinetxiki’ haur eta gazteentzako zinemaldi internazionala, 18:15ean, Kultur Etxean.

ZORNOTZA ikuskizuna
‘Artxipielagoa’, 20:15ean, Zornotza aretoan.

ELORRIO antzerkia
‘Ez dok iru’ euskal musikaren benetako istorioa, 20:30ean, Arriolan.

Urtarrilaren 13an

BERRIZ antzezlan
‘Espacio Disponible’, 20:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO antzezlan
‘Soka’, Tanttaka konpainiaren obra, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO ikuskizuna
‘Orroak’ Ion Ugarrizak zuzenduta, musika eta ipuin laburrak uztartuko dira, Bogoroditsie abesbatzaz eta Jon Unzuetairen ipuinekin, 20:00etan, San Frantzisko elizan.

Urtarrilaren 18an

ZORNOTZA musika
Bikarteri laguntzeko kontzertu solidarioa 20:15ean, Zelaietako frontoian.

ZORNOTZA musika
‘Trizak’ Jon Piris, Hasier Oleaga eta Julen Izarragaz, 20:15ean, Zelaieta Zentroan.

Urtarrilaren 19an

ELORRIO afaria
‘Gazte afaria’, 21:30ean, gaztetxean.

ZORNOTZA ikastaroa
‘Kontu leku’ Aitor Ormaetxeak dinamizatuta, urtariletik martxora, barikuro, 3-4 urtekoentzat: 17:30ean; 5-6-7 urtekoentzat: 18:30ean, Zelaieta Zentroan.

DURANGO ipuin kontaketa
‘Una habitación propia’ Tania Muñozegaz helduentzako ipuin kontaketa, 19:00etan, Bizenta Mogel udal bibliotekan.

DURANGO hitzaldia
‘Nola heldu naiz ni honaino’ liburuaren inguruko berbaldia Kattalin Miner idazleagaz, 18:00etan, Andragunean.

ZALDIBAR deialdia
‘Afari mexikarrak’, Castet elkartean.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

IURRETA deialdia
Goiuria ikastolako guraso ohiak elkartzeko batzarra, 19:00etan lehen deia, 19:30ean bigarrena, Ibarretxen.

Urtarrilaren 20an

BERRIZ jaialdia
‘Super Eguna’ egun osoko egitaraua, Hiltegixe gaztetxean.

BERRIZ musika
Worth It eta We Ride taldeen kontzertua, 21:30ean, Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia
‘El tanguito de mamá’ antzezlan, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO musika
‘Pott produkzioak’ jaialdia. Storm, State Alerta, The Wilsons eta Txapito Guzman & Ibarako langostinuek taldeen kontzertua, 20:30ean, Plateruenean.

ELORRIO musika
Zesura eta Kultu Kultibo taldeen kontzertua, 22:30ean, gaztetxean.

Urtarrilaren 21ean

DURANGO musika
Ruper Ordorika, 19:00etan, Plateruenean.

ELORRIO hitzaldia
‘3rok Australian’ Urdin Ugartegaz, 17:30ean, gaztetxean.

DURANGO antzerkia
‘Jon Braun’ antzezlan, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

Urtarrilaren 23an

ZALDIBAR emanaldia
‘Gernikaren Egiak’ dokumentalaren aurkezpena eta solasaldia, Castet elkartean.

Urtarrilaren 26an

ELORRIO hitzaldia
Bertso afaria, 21:30ean, gaztetxean.

Urtarrilaren 28an

ELORRIO hitzaldia
Errepresioaren inguruko eztabaida, 17:00etan, gaztetxean.

Otsailean zehar

DURANGO ikastaroak
Adikzioen prebentziorako zerbitzuek antolatutako ikastaroak, Durangoko Amankomunazgoko ikastetxeetan. Izen-ematea urtarrilaren 19ra arte zabalik. Deitu 94 620 05 20 edo idatzi *prevencion.mdurango@bizkaia.org* helbidera.

Urtarrilaren 10etik 31ra

ELORRIO erakusketa
‘Tanger Dream’ Txelu Angoitiaeren argazkiekin, Iturri kultur etxean.

Zine- ma

:: **Berriz** KULTUR ETXEA

• **Wonder Wheel**
barikua 12: 22:00
domeka 14: 19:00

:: **Durango** ZUGAZA

• **Thi Mai**
barikua 12: 19:30/22:00
zapatua 13: 19:30/22:30
domeka 14: 19:00/21:15
astelehena 15: 18:30/21:00
martitzena 16: 20:00
eguaztena 17: 20:00
• **El extranjero**
barikua 12: 19:30/22:00
zapatua 13: 19:30/22:30
domeka 14: 19:00/21:15
astelehena 15: 18:30/21:00
martitzena 16: 20:00
eguaztena 17: 20:00
• **Que fué de Brad**
barikua 12: 19:30/22:00
zapatua 13: 19:30/22:30
domeka 14: 19:00/21:15
astelehena 15: 18:30/21:00
eguaztena 17: 20:00
• **La panda de la selva (euskaraz)**
zapatua 13: 17:00
domeka 14: 16:30
• **Ferdinand**
zapatua 13: 17:00
domeka 14: 16:30

:: **Elorrio** ARRIOLA

• **Perfectos desconocidos**
zapatua 13: 22:00
domeka 14: 20:00

:: **Zornotza** ARETOA

• **Wonder Wheel**
zapatua 13: 19:30/22:00
domeka 14: 20:00
astelehena 15: 20:15
• **Paddington 2**
zapatua 13: 17:00
domeka 14: 17:00

Beherapenak

URTARRILEAN SCHMIDT-EK
BLUETOOTH SOINU SISTEMA
BAT OPARITZEN DIZU ZURE ETXEKO
SUKALDE EDO ALTZARIRAKO

* Ikusi baldintzak dendan

SCHMIDT
ETXEKO SUKALDE ETA ALTZARIAK

“Federicik tonu probokatzailea darabil testuetan, gaia mahai gainean jartzeko”

Silvia Federici idazle eta aktibista feministaren “Soldataren patriarkatua. Marxismoari begira egindako kritika feministak” artikulu-bilduma euskaratu du Amaia Astobiza zornotzarrak; euskaraz publikatu du Katakakek, lehen-lehenik.



Amaia Astobiza Uriarte
Itzultzailea

Zornotza | 1974

Astobiza, Soldataren patriarkatua. Marxismoari begira egindako kritika feministak liburaren ale bat esku artean duela.

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Silvia Federiciren bi lan publikatu dituzte berriki, ‘Caliban eta Sorgina’ (Jakín-Elkar, 2017), eta ‘Soldataren patriarkatua. Marxismoari begira egindako kritika feministak’ (Katakakek, 2017). Bigarrena Federiciren artikulu-sorta da, euskaraz publikatu da lehen-lehenik eta Amaia Astobiza arduratu da itzul-tzeaz.

Zein da feminismitik marxismoari egiten zaion kritika nagusia?

Liburua bost artikuluk osatzen dute. Artikuluetako bat liburu honetarako propio idatzitakoa da, eta etxeko lanen, etxekoandarearen figuraren eta familia-eredu berriaren sorrera azaltzen ditu. Beste artikulu bat 1975ekoa da, orduko Soldatak Etxeko Lanentzat mugimenduaren harira idatzitakoa, baina gaurkotatua handikoa da.

Hirugarren bat 2017ko irailean Zaragozan emandako hitzaldi baten transkripzioa da. Beste bi artikulua teorikoagoak dira, eta horietan egiten du marxismoaren kritika; kritika eraikitzailea, nolabait. Federiciren ustez, Marxek utzitako metodologia baliagarria da feminismoarentzat, baina badago arazo handi bat: Marxek ez dio genero auziari heltzen, emakumeak sistema kapitalistan daukan papera oso gutxitan aipatzen du. Eta hori da Federicik aztertzen duena, nola ez zen ohartu Marx emakumeak egiten duen erreprodukzioan horrek kapitalismoarentzat duen garrantziak. Bere arabera, etxeko lanak egitea ez da bakarrik etxea garbitzea; etxeko lanak dira, baita ere, fabrikara doan gizona sexualki, fisikoki eta emozionalki zerbitzatzea, edota kapitalaren langile izango diren umeak sortu, jagon eta hezteak. Itxura batean, produkzio lana da kapitalismoaren oinarria, baina,

horren azpian, kapitalismoaren oinarri-oinarrian, erreprodukzioa dago, eta hori da Marxek bere teoriarik kontuan hartu ez zuena.

“**Azpimarratu gura dut liburuaren ekoizpenaren oinarrian zaintze lana egon dela**”

Nondik dator Katakakegaz elkar-lana?

Azkenaldian, zaintzari eta interdependentziari buruzko gogoeta sakona egitea tokatu zait. Abuztuaren amaieran, Federicik 2012an ingelesez eskainitako irratisaio bat topatu nuen, eta euskarara ekarri nuen; lagun baten bidez Katakakera iritsi zen, eta blogean argitaratu zuten. Katakakek Silvia Federicigaz azken urteetan landutako harremanaren ondorioz, artikulu-bilduma hau euskaraz

argitaratzeko aukera sortu zen; lehenengo euskaraz, eta, gero, gaztelaniaz eta katalanez. Itzulpena bost astean egin genuen, Durangoko Azokarako argitaratu gura zutelako; gura baino estuago egin dugu lan, baina gustura geratu gara egindako lanagaz. Azpimarratu gura dut ekoizpenaren oinarrian ere zaintza lana ageri-agerian egon dela. Produkzioan parte hartu dugunon artean ondo zaintzen saiatu gara; lagun baten eskutik iritsi zitzaidan proposamena, on egingo zidalakoan. Nerea Fillatek egin ditu editore lanak eta, hasieratik, bakoitzak etxean eduki dituen zaintza lanak kontutan hartu ditugu. Olatz Orobengoa lagunak gainbegiratu dizkit itzulitako testuak. Beraz, azpimarratu gura nuke, liburu honen ekoizpenaren oinarrian zaintze lana egon dela.

Zeintzuk izan dira buruhausterik handienak itzulpena egiterakoan?
Buruhausterik handienak testurik

teorikoenekin izan ditut. Horrez gain, arreta berezia jarri diegu Federiciren tonuari eta terminologiari. Izan ere, Federicik urgentsia bat adierazten duen tonu probokatzailea darabil testu hauetan, aztertzen dituen gaiak lehenbailehen mahai gainean jartzeko nahi bat-edo igartzen zaio. “Hauek dira marxismoaren mugak, eta guri dagokigu muga hauek gainditzeko”, dio berak. Bestalde, saiakera liburuetan pisu handia du terminologiak, eta gu, gure aldetik, alderdi hori ahalik eta gehien zaintzen saiatu gara. Horretarako, marxismoari buruz euskaraz argitaratutako testuak kontsultatu ditut, baita azaroan kaleratu zen *Caliban eta Sorgina* ere, kontraste lana egiteko eta diskurtso berriak

“Kapitalismoaren oinarri-oinarrian erreprodukzioa dago, eta Marxek ez du kontuan hartu hori”

sortzen ari garen une honetan denok noranzko berean jarduteko **Federiciren ideiak Euskal Herrian errotzen ari dira?**

Baietz uste dut. Emakumeak kapitalismoaren sorreran izan duen papera agerian jartzeko nahi eta behar bat dago, eta *Caliban eta Sorgina* klasiko bat bilakatu da feminismoaren barruan. Horrez gain, arazo handi bat daukagu hemen zaintza lanekin, eta uste dut hortik ere badatorrela Federicirekiko interesa.

Soldata auzi ekonomiko hutsa da?

Ez, ez da diru truke bat soilik. Bizitza honetan, erreprodukzio lana ezinbestean egin beharreko lan bat da, eta lan hori emakumeok egiten dugu neurri handi batean; horregaz lotu behar da Federicik behin eta berriro aipatzen duen etxekoandarearen figura. Beraz, erreprodukzio lanari soldata bat esleituta, emakumeok egiten dugun lan hori aitortzen ari zara. Beste kontu bat da, jakina, nola banatu behar den emakumeen eta gizoneen artean erreprodukzio lan hori guztia. Aztertzeak da, baita ere zergatik garen emakumeak, batez ere, zaintza lanez arduratu behar izaten garenak.

hitz liburutegia
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburutegia.com

#gomendioak

HELDUENTZAT
XALA
Cynthia Ozick
2017

UME ETA GAZTEENTZAT
BERRIZ UDA!
Golazen
2017

MUSIKA
KALIMA
Glaukoma
2017

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

katerin ardoak
inñaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuak menu bereziak
Delicatessena - Ardoteia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

Urtarrilaren 15ean zabalduko da Topaklownen izena emateko epea

Diziplina askotako eskaintza biltzen dute San Agustineko, Zornotza aretoko eta Berrizko Kultur Etxeko programek; asteburu honetan ekingo diote 2018ko programazioari.



Ikasle batek bere buruaz beste egin ostean, irakasleak egiten duen hausnarketa erakusten du Soka antzezlanak.

PROGRAMAZIOA • A.M./M.Z.

Domekan abiatuko da San Agustin kulturguneko 2018ko programazioa, Tanttakaren *Soka* antzezlanagaz. Maiatzera bitartean, zenbait diziplinatako hamabost ikuskizun eskainiko dituzte guztira. *Melodías Mágicas* eta *Alicia Después de Alicia* nabarmendu ditu Arantza Arrazola koordinatzaileak, besteak beste. Durangaldeko sortzaileek ere parte-hartze zabala dute programan: *El Tanguito de Mamá* obran, adibi-

dez, Ion Ugarriza durangarra da zuzendari artistikoa, eta *Jon Braun* umeentzako antzezlaneko akto-reetako bat Miren Larrea zornotzarra da. Martxoan, berriz, *Alizia lurralde miresgarrian* eskainiko dute. Arrazolaren berbetan, ikuskizun hau oso arrakastatsua izango da, eta sarrerak lehenbailehen erosteko gomendioa egin du.

Ikasturteko ekimen garrantzitsuenetako bat martxoaren 28tik apirilaren 1era egingo den

Topaklown izango da. Klown topaketako ikastaroetan parte hartze-ko izen-emate epea urtarrilaren 15ean irekiko da. Arantza Arrazola San Agustineko koordinatzaileak Peter Shub estatubatuararen ikastaroa nabarmendu du. “Klown mugimenduko mugarri bat da”, adierazi du. Ikastaroez gainera, bederatzi ikuskizun eskainiko dituzte, eta horietan nazioarteko eta Euskal Herriko artistek hartuko dute parte. Gabonetako egitarauak

izandako arrakasta nabarmendu dute, bestalde. *Maluta* ikuskizunak, adibidez, sarrera guztiak agortu zituen hiru egunetan. “Familia ikukizunek duten garrantzia berresten du honek”, azaldu du Arrazolak.

‘Artxipielagoa’, gaur

Zornotza Aretoko 2018ko programazioa, berriz, gaur abiatuko

San Agustin kulturguneak eta Zornotza aretoak bazkide berriak lortzeko kanpaina abiatu dute

da *Artxipielagoa* ikuskizunagaz. Lehenbiziko sei hilekoko egitaraua hamabi ikuskizunek osatuko dute; antzerkiak, musikak eta zineak osatzen dute eskaintza. Urtarrileko beste ikuskizun indartsuenetako bat Josu Camarak zuzentzen duen *Ele! Lorca-Lauaxeta* ikuskizuna izango da. Hilaren 26an egongo da lan hau ikusteko aukera. Dantzaren, hitzaren eta musikaren bidez, Lauaxetaren eta Lorcaren ibilbideak gurutzatuko dira.

Berrizko Kultur Etxean, oster, bihar ekingo diote urteko programazioari *Espacios Disponibles* antzezlanagaz. Hilaren 26an haurrek *Alizia lurralde miresgarrian* ikuskizunaz gozatu ahaliko dute. Urtarrileko saioez gain, antzerki zaleek eskaintza oparoa izango dute maiatzera arte. Beste protagonistetako bat musika izango da. Maiatzaren 5ean, esaterako, Izarok *Eason* lana aurkezteko kontzertua emango du.

Geure Durangaldea

Martin Loizate Sarriñandia Ikaslea



Leku hutsa

Persiako erregearen mespretxurako, antzina greziarrek bazuten hiriaren erdian, tenplu eta tronuen orde, “leku huts” bat. Plaza edo leku huts horretan batzen ziren hiritarrak -emakume eta esklabuak ezik, gainontzekoak- hiritarren gauzen gainean erabakitze-ko, euren “gainetik” izarrak bakarrik zeudelarik. Hor, leku huts horretan hasten omen da demokrazia. Leku huts hori parlamentuarekin alderatu daiteke gaur egun.

Ciro persiarren erregeak ez zuen leku hutsarena ulertzen, eta barre egiten zien greziarrei. Azken hauek bi gerra irabaziko zizkieten gero.

Baina leku hutsa ez zegoen horren hutsik, plaza berean antolatzen baitzuten hiritarrak -emakume, esklabu eta pobreek izan ezik, gainontzekoek- merkatua.

Eta merkatua hazten joan zen, eta merkatariak lekua jan zioten leku hutsari, hots, demokraziari, eta, ondorioz Arkimedesena, nola gorputz berri bat bertan sartzen denean lehendik han zegoena ateratzen den, leku hutsean ez zaigu hutsik geratzen, eta galdetzen dugu: nork agintzen du hemen? Nork? Eta ez daki-gu erabakiak parlamentuetan edo multinazionalen bulegoetan hartzen diren, etab. Etab.

Katalunia den plaza horretan, borrokak hor dirau oraindik: leku hutsera hurbildu diren herritarrek erabaki dute zer egin, dagoeneko hiru bider gutxienez. Merkatari aberatsek ez dute euren merkatua desmuntatu nahi, eta ihes egingo dutela mehatxatzen dabilzan arren ez dute horren erraz lekua hustuko. Persiako erregeak ez bezala, leku hutsari beldurra diote.



Artxipielagoa ikuskizuna ikusteko aukera egongo da gaur, Zornotza Aretan.



Otsailaren 17an, Lukiek taldeak kontzertua eskainiko du Berrizko kultur etxean.

Soka

Tanttaka Teatroa

Urtarrilaren 14a, 19:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

PLATERUENA

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatelexea@plateruena.net

Urtarrilak 13 - 22:00etan
AUPA Y OLE
Bakarriketak

Urtarrilak 20 - 20:30etan
POTT PRODUKZIOAK FESTIVAL
Kontzertuak

Urtarrilak 21 - 19:00etan
RUPER ORDORIKA
Kontzertua

“Bost-hamar urteren barruan padela dezente gehiago haziko dela uste dut”

Jokatzeko kirol erraza eta entretenigarria dela dio Iñaki Urionaguenak, eta etorkizun oparoa ikusten dio

PADELA • JOSEBA DERTEANO

Pilotari profesionala izan zen hamarkada batez (1992-2001). Garai-ko pilotaririk onenen kontra aritu zen eta binakako final bat jokatu zuen Ladis Galartzarekin. Baina esku pilota utzi zuenean, kantxa pistagatik aldatu zituen, padel-pistagatik. Eskualdean oraindino kirol arrotza zenean hasi zen jokatzeko. Padelzaleak klubean dabil eta afizio handia du.

Noiztik zara padelzalea eta zelan deskubritu zenuen kirol hau?

Errota gimnasioan, gaur egun Ibaizabal ikastola dagoen tokian, padel-pista bat jarri zuten eta han hasi ginen 1996. urte inguruan. Azken urteetako boom hori eman aurretik gu bagenbiltzan. Durangaldean padelean lehenengo hasi ginenak geu izango ginen, seguruenik. Orduan ia ez zegoen jokatzeko pistarik. Gogoan dut, behin, Gordexolako lagun batzuek euren herrian zegoen pistan jokatzera gonbidatu gintuztela. Nobedadea izan zen.

Gaur egun egoera bestelakoa da.

Bai, Durangon badaude eta gehiago ipiniko dituzte. Zornotzan eta Abadiñon ere badira. Zamudio, Ortuella... gero eta gehiago daude, eta arratsaldetan jokatzeko tokia biltzea ez da erraza. Jende asko dabil. **Zer dauka padelak jendea hainbeste erakartzeko?**

Fisikoki ez duzu beste munduko prestakuntzarik behar. Gainera, erraz jokatzeko da. Maila antzerakoa duten lau lagun batuz gero, ordu-bete dibertigarria igarotzeko kirol fenomeno da.

Esku pilotagaz alderatuta, zer abantaila ditu?

Lagunartean pilotan jarraitzeak denbora eskatzen zidan: takoak jarri behar dira, eskuak berotu behar dituzu... azkenean, jokatzeko hasi orduko denbora piloa joaten da. Padelean bost-hamar minutuan luzamendu ariketak egin eta jokatzeko prest zaude.

Esku pilotan indarreko pilotaria baino, abila eta iaioa izan zinen. Dohain horiek behar dira padelean ere?

Denetarik behar da, kirol askotan moduan. Padelean erasoko jokoa aipatzen da, baina, nire ustez, ondo defendatzen duenak partidu gehiago aterako ditu aurrera. Defentsa handia eskatzen duen kirola da.

Torneo asko jokatzeko dituzu?

Hasi ginenean, bai, baina gaur egun, ez. Durangoko San Fausto txapelketakoa jokatzeko dut, antolakuntza ona izaten delako eta merezi duelako. Bestela, lagun artean ibiltzen naiz. Zamudion eta Zornotzan aritzen gara.

Zergatik ez Durangon?

Durangokoak padel-pista irekiak dira, eta neguan hotza egiten du. Gainera, euria egiten duenean kristaletan hezetasuna egoten da. Aukeran, nahiago dugu barruko pistetan jokatu.

Padela moda pasakor bat da ala geratzeko etorri da?

Ez dut uste moda pasakor bat izango denik, jokatzeko oso erraza baita! Adin denetako jendea ikusten dut jokatzeko, 60 urtetik gorakoak ere bai. Kirol entretenigarria da.

Padelean binaka jokatzeko da normalean. Horregatik, garrantzi handia hartzen du bikotekideak. Zu betikoa-gaz aritzen zara?

Guk lagunartean jokatzeko dugu, eta azken 12 urteetan betiko lau



Iñaki Urionaguena
Artaetxebarria
Abadiño, 1971
Pilotari ohia eta
padelzalea

Durangoko padelzaleak klubeko kidea da eta hainbat torneo irabazi izan ditu, Durangoko San Fausto jaietakoa, besteak beste.

padel-jokalariak batu izan gara. Gero, beste batzuekin ere jokatu genezake, baina lauron arteko partidu hori ezinbestean jokatzeko dugu. Torneoetan parte hartu izan dudanean Bittor Royuela durangarraz jokatu izan dut.

Padel zirkuitu profesionaleko gaurkotasanari jarraitzen diozu? Txapelketak, nobedadeak...

Bai, telebistan partiduak ikusi daitezke eta gaur egun erraztasun gehiago dago gaurkotasanari jarraitzeko. Hego Amerikan jokatzeko

“Adin guztietako jendea ikusten dut padelean jokatzeko, 60 urtetik gorakoak ere bai. Kirol entretenigarria da”

“Durangaldean padelean hasi ziren aurrenekoak geu izango ginen, seguruenik. Orduan ia ez zegoen pistarik”

da, Europan ere gero eta gehiago... Bost-hamar urteren barruan padela dezente gehiago hazi eta zabalduko dela uste dut.

Esku pilota erabat alde batera utzita duzu?

Jokatzeko, bai, baina ikusteko, ez. Telebistatik jarraitzen dut eta, noizerekin noizera, partiduak zuzenean ikusten ere joan izan naiz.

1993. urtea eta Bergarako pilotalekua. Data eta toki horiek esanda, zer datorkizu burura?

Binakako finala. Ladis Galartzagaz batera Jose Mari Zezeagaren eta Jokin Etxanizen kontra jokatu nuena. **Galdu egin zenuten: 22-15. Zelan gogoratzen duzu final hura?**

Partidu gogorra izan zen. Gogoan dut finalaren aurretik ligaxkan euren kontra partidu bi jokatu eta biak galdu genituela. Zezeaga sasoi betean zegoen eta jotzaile bildurgarria zen, batez ere eskumagaz. Etxaniz azeri zaharra zen: asko defendatzeaz gain, aukera zuenean tantoa amaitzen zuen. Final batera heldu eta bera galtzea pena izan zen.

Garai hartan zein izan zen zuretzat kontra jokatzeko aurrelaririk deserosoena?

Aurrelari on asko egon ziren. Jokin Etxaniz eta Mikel Unanue, esaterako. Julian Retegi, Panpi Ladutxe eta Titin III.a... pilotari on asko zeuden. **Aurtengo binakakoari zer traza hartzen diozu? Nork irabazi dezake?**

Aurrelarietan Mikel Urrutikoetxea eta Aimar Olaizola ikusten ditut joko punturik onenagaz. Zein bikote ikusten dudana txapeldun? Zaila da esatea. Parekotasun handia dago.

Imajinatu txapelketan zabilazala eta atzelaria hautatzen uzten dizutela. Nor aukeratuko zenuke?


Ez da erraza aukeratzeko. Beharbada Mikel Larunbe. Oso ondo dabil. Gertatzen dena da Oinatz Bengoetxea ez dagoela iazko sasoi puntuan.

Abadiñok beste pilotari profesionalik ezagutuko ote du?

Ez dakit, ba. Rober Uriarte izan da azkena. Kontratua berritu ez ziotenean, harritu egin nintzen. Horretarako adina meritu egin zuela uste dut.



KIROLA KALITATEAZ
Olleria kalea 6, Durango
944 055 455 - 688 727 038
ekanazentroa@gmail.com
www.ekana.es



Kirol errendimendua
Especialistak entrenamendu neuromotorean,
ergometrian eta lesioen errehabilitazioan

ENTRENAMENDU PERTSONALIZATUAK
ESFORTZU PROBA KIROL-MEDIKUAK
FISIOTERAPIA ETA BERREGOKITZEA



Espainiako txapelketa irabazteko aukerak ditu Jon Munitxa abadiñarrak

Abadiñoako ziklo-krosean Bizkaiko txapeldun geratu da. Ivan Feijoo eta biak paretsu aritu ziren proba osoan. Bihar, Espainiako txapelketan berriro neurtuko dituzte indarrak

ZIKLO-KROSA • JOSEBA DERTEANO

Abadiñoako ziklo-krosak hainbat interesgune izan zituen joan zen asteburuan. Bizkaiko txapeldunak erabaki ziren, baina, horrez gainera, Espainiako txapelketaren atarian, txirrindulari bakoitza zer sasoitan dagoen neurtzeko ere balio izan zuen. Begi bat norbere errendimenduan eta beste bat aurkarienean izan zuten parte-hartzaileek, asteburu honetan Legazpian (Gipuzkoa) jokatu den Espainiako txapelketarako ondorioak ateratzeko. Testuinguru horretan, ikusi eta bizitakoagaz gustura geratu zen Jon Munitxa (Abadiño, 1996).

Espainiako txapelketan, 23 urtez azpiko mailan, Ivan Feijoo izango du aurkari indartsuenetakoa eta Abadiñoan parez pare aritu ziren probako hainbat unetan. Munitxak indartsu ekin zion lasterketari eta aurreneko itzuli bietan aurretik

aritu zen. Ondoren, bizikletako aldagailuetan arazo bat tarteko —platera trabatu zitzaion—, gali-ziarrak aurreratu egin zuen eta berarentzat izan zen garaipena. Munitxa lehenengo bizkaitarra izan zen helmugan eta Bizkaiko txapeldunaren elastikoa jantzi zuen, bere ibilbidean hirugarrenez. “Feijook 23 urtez azpiko Espainiako Kopa irabazi du aurtan eta Abadiñoan ez zidan denbora askorik atera. Gainera, azken itzulia ez nuen topera egin. Gustura nago eskainitako errendimenduagaz. Espainiakoan ondo aritu naitekeela uste dut”, adierazi du Eiser-Hirumet taldeko txirrindulariak.

Zorrak kitatuta

Etxeko probak bereziak izaten dira edozein txirrindularirentzat. Denei gustatzen zaie lagunen eta ezagunen aurrean ondo aritzea. Aurtan arte, arrazoi bategatik edo



Jon Munitxa ziklo-kros lasterketa batean. Mikel Alonso

besteagatik, tajuzko lasterketarik eskaini barik zegoen sorterrian, eta kontu hori kitatzea ere lortu du. “Aurreko aldietan nerbioso egoten nintzen, neurerik eman ezinda. Aurtan lehenengo aldia da lasterketa ona irteten zaidana eta alde horretatik ere pozik nago. Azken itzulian lasaiago hartzea eta lasterketagaz gozatzea erabaki nuen”,

onartu du. Gainera, bere gustuko zirkuitua aurkitu zuen. “Euria egin zuen eta zirkuitua lokaztuta zegoen, baina ez itsaskor, eta arin joateko modua zegoen. Niretzat, ezin hobeto”, adierazi du.

Gogotsu, esperantzagaz eta sasoiari dago. Aurtan bere mailan salto bat eman du eta hori islatzen saiatuko da Legazpian.

Asteko kirolaria

“Banituen duda txikiak, baina gero lasai sentitu eta gustura aritu nintzen”

Ordezko moduan sartu da, eta eskaini dioten aukera bikain aprobetxatu du. Asteburu honetan ere bera izango da Urrutikoetxearen bikotekidea, Olaizolaren eta Imazen aurka

Ladis Galartzaren eta Andoni Aretxabaletaren lesioek binakako esku pilota txapelketa jokatzeko aukera eskaini diote Ibai Zabalarari. Berak ere badaki lesionatuta egotea zer den. Hainbat lesio izan ditu bere kirol ibilbidean. Urrian itzuli zen kantxetara azken lesiotik.

Berriro ere goian eta onenen artean zabitza, Ibai.

Bai. Lesio asko izan ditut zoritxarrez, baina horietatik errekupe-ratzeko eta berriro nahiko gora heltzeko zortea ere izan dut.

Bengoetxearen eta Larunberen kontrako garaipenean konfiantzagaz jokatzeko ikusi zintugun.

Bai. Egia esanda, duda txikiak banituen. Azken hile eta erdian oso ondo jokatzeko nentzen, baina

txapelketa bateko maila, abiadura, pilotak... beste kontu bat dira. Hala ere, jokatzeko ordua heldu zenean lasai sentitu eta gustura aritu nintzen. Mikel Urrutikoe-txeagaz jokatzeko ere laguntzen du. Hasieran esan zidan ez zela gustura sentitzen, indar barik moduan zegoela, baina horrela egonda ere asko jokatzeko du. Goi mailako pilotaria da.



IBAI ZABALA GANDARIAS

Berriz, 1987

Enpresak esan dizu txapelketan noiz arte jokatu duzun?

Joan zen astean deitu zidaten eta jokatu nuen. Asteon ere Olaizola eta Imazen kontra arituko naiz. Astean astekoari begiratzen diot.

Adituaren txokoa

Kepa Arroitauregi
Egaña
Pilota teknikaria



Titular zein ordezk

Profesional mailako Binakoak bere lehen erdia pasatu du jada. Hori esanda eta ‘gure’ pilotarien balorazioa egiten hasita, pozik egon beharra daukagula uste dut. Titular zein ordezk gisa jokatu duten edo jokatzeko ari diren denek ‘bikain’ bat merezi dute. Denen artetik, Urrutikoetxea goraipatu behar da beste behin. Zaratamoarra gaur egungo pilotarien artean sendoena delakoan nago, pilotari osoena. Berarekin jokatzeko garrantia bat da eta aurrelari izanda ere sekula ezkutatzen ez dena. Pilota astintzen, tantoa bukatzen eta defentsan bikain.

Bere herrikide Danel Elezkanok ere oso fin dabil. Egia da atzean momentuko ‘bizkartzain’ onena daukela, baina koadro biziaren bere lana oso ondo betetzen ari da. Beste titularra, Mikel Larunbe, sailkapenari begira ez dago besteak lez buruan, baina joko oso ona erakutsi du partiduko guztietan. Bikotean makaltxoago dabilena Oinatz Bengoetxea da, baina egingo du gora, seguru.

Eta ordezkak, Andoni Aretxabaleta eta Ibai Zabala, bere aukera probesteko gai izan dira. Pena markinarrarena, lehen mailan konfiantza hartzeko partiduko egin ostean lesio-natu baita. Berriz zerotik hasi behar! Horrek berriztarrari bidea zabaltu dio eta, momentuz, bikain erantzun du Ibaik. Noiz arte?

Azken galdera horrek, hain zuzen, badu bere izateko arrazoia. Asegarcek Ladis jarri zuen titular. Lesioen ostean, ondo dagoen jakiteko programatu dute asteon. Partidu bikaina egiten badu, berriro sartuko dute txapelketan? Errendimendu txarragatik Victor ‘titularra’ kendu duten moduan, errekupe-ratuta badago sartuko ote dute ‘titularra’?



Bertako txirrindularitza lagunduz!!

eiser

etxebizitza ekoeraginkorrak diseinatu,
proiektatu eta eraikitzen ditugu

www.eiser.es

946 225 245

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

www.inmoetxetxo.com

DURANGO 2 logela
1 komun
82 m²

ASKATASUN ETORBIDEA: 2 logela, bainugela 1, egongela, sukalde-jangela. Balkoia.

185.000€

DURANGO 3 logela
90 m²

ANTSO ESTEGIZ: 3 gela, bainugela 1 sukaldea eta terrazadun egongela.

165.000€

IZURTZA 2 logela
1 komun

IZURTZA: 2 gela, bainugela 1, egongela eta sukaldea. Guztiz berriztatua. Txakurrentzak txabola.

72.000€

DURANGO 4 logela
106 m²

MIKELDI: 4 gela, 2 bainugela. Sukaldea balkoi handiarekin. Egongela terrazarekin. Trastelekua. Garajea hautazkoa.

180.000€

DURANGO 3 logela
1 komun

DURANGO: 3 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea. Eguzkitsua.

80.000€

DURANGO 3 logela
105 m²

ABASOLO: 3 gela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. 2 terraza. trastelekua eta garaje itxia. Eguzkitzua. Kanpoaldea.

279.000€

//ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN
DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 600€-tik hasita.

//ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO. Astarloa kalean. Hiru logelako pisua, Egongela balkoiarekin, komuna eta ganbara. 90 m².

DURANGO. San Fausto. Logela biko pisua, Sukaldea, bainugela eta logela. Merkea

BERRIZ. Etxebizitza guztiz berriztua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

DURANGO. ARTEKALE. Azken duplex-ak, Logela bikoak, bi bainugelarekin. Prezioak 179.000 €-tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, bainugela, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI
ABADIÑO. 15.000 m²-ko lursaila salgai. Rurala. Kokapena ezin hobea

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze baimenarekin, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarra bat eraikitze baimenarekin, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ELORRIO. Aldape auzoa. Baserrira berriztatzeko, 3 hektareako lursaila. Prezioa 160.000 €

ATXONDO. Baserrira ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgioitio. Bifamiliarra ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapena ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserrira bifamiliarra berriztatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze baimenarekin.

BERRIZ. Baserrira ederra, Murgioitio zonaldean. Hiru hektareako landa baserrira ondoan

//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO. 40 m²-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

//LOKALAK ALOKAIRUAN
DURANGO Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA. 460 m²-ko lokala salgai, Bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 3 logela
2 komun
85,83 m²

HERRIKO GUDARIEN: 85,83 m². 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea jarrita. Balkoia eta terraza. Altzariz hornitua. Garajea

255.000€

DURANGO 1 logela
65,55 m²

ASKATASUN: Egongela, sukaldea jarrita, gela 1, komuna eta balkoia. Egoera onean eta ondo zainduta. Garajea eta trastelekua

175.000€

DURANGO 2 logela
2 komun
80 m²

LANDAKO ETORBIDEA: 80m². 2 gela, egongela, sukaldea jarrita, 2 bainugela eta balkoia. Teasteleku handia eta garajea. C.E.E.D

250.000€

DURANGO 2 logela
57,60 m²

TABIRA: 57,60 m². 2 gela, egongela eta sukaldea jarrita. Bainugela eta 2 balkoi. Guztiz berriztatua, baita kanpoaldea.

169.000€

ATXONDO 3 logela
1 komun

ATXONDO: 90 m². 3 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea jarrita eta despentsa. Egoera onean, guztiz ornitua. Garaje handia.

180.000€

IURRETA 3 logela
55,51 m²

IURRETA: 55,51 m² + balkoia. 3 gela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. Guztiz ornitua. Igogailua.

130.000€

DURANGO 3 logela
82 m²

Komentu kalea 82m² erabilgarri, 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta ganbara. **310.000€** +BEZatik aurrera.

310.000€

//DURANGO
ARAMOTZ 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela 95.000 € / E.E.Z=G

ASK. ETORBIDEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, despentsa 146.000 € / E.E.Z=F

LANDAKO ETORBIDEA 2 logela, sukalde-jangela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi. Garajea. 267.800 € WW/ E.E.Z=E

BARRENKALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela 120.300 € / E.E.Z= G

BERNARDO GABIOLA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela 85.000 € / E.E.Z=E

ERRETENTXU 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia 210.000€ / E.E.Z=E

ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia 205.000 € / E.E.Z=E

EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela 321.500 € / E.E.Z=F

FRANCISCO IBARRA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, despentsa 230.000 € / E.E.Z= F

GOIENKALEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, jantzigela 114.000 € / E.E.Z= G

HERRIKO GUDARI KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, 2 terraza. Garajea 255.000 € / E.E.Z= G

JUAN DE OLAZARAN 3 logela, sukaldea, 2 bainugela, egongela, terraza. Garajea. 376.000 €/ E.E.Z=B

KIRIKIÑO KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela 75.000 € / E.E.Z=G

KOMENTU 3 logela, sukaldea, egongela, terraza 135.000 € / E.E.Z= G

MIKELDI 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna, 2 balkoi 200.000 € / E.E.Z= E

MONTEVIDEO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela 230.000 € / E.E.Z=F

PAGASARRI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, esekitokia, 2 balkoi. Kamarotea, garajea. 260.000 € / E.E.Z=F

PLATERUEN PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela. trasteroa, Garajea. 270.000 € / E.E.Z=E

ZUMALAKARREGUI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela. Garajea. 695.000 € / E.E.Z= E

//ABADIÑO
FERIALEKU 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Garajea. Lehen 190.000 €/ Orain 175.000 € E.E.Z=G

ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Garajea. 309.000 € / E.E.Z= F

//BERRIZ
BERRIZBETIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia 120.000 € / E.E.Z= F

//ELORRIO
ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, garaje itxia 219.000 € / E.E.Z= E

LABAKUA KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, despentsa 198.000 € / E.E.Z= F

//OTXANDIO
GOMILAZ AUZOA Baserrira: Jatetxe eta etxebizitza 5 hektareako lurzoruagaz 1.200.000 € / E.E.Z= G

//NOBEDADEAK
ASKATASUN ETORBIDEA Logela 1, sukaldea, egongela, bainugela, balkoi itxia, igogailua, kamarotea, garajea 175.000 € / E.E.Z=E
SANTASUSANOSTE KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoi itxia, igogailua, kamarotea, garajea 175.000 € / E.E.Z=E

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Aita-alabek urtebete gehixau dekiela! **Intzak** 9, aitatxoaz batera urtarilaren 1ien eta **Iratik** 6 urtarilaren 10ien ein dabez. Zorionak eta musu potolo bat Inhar eta amatxon partez! Pilo bat maite zaittuegu!



Zorionak, **Anartz!** Jarraituizu zure irribarre eta izekeriaz maitte zaitugun danok gozarazten.



Zorionak, **Garazi** etxekoen eta lagunen partez. Ondo ospatu egune!



Zorionak, **June**. Moxu asko Bilboko printzesari familia osoaren partez. Jarraitu beti bezain alai!



Zorionak eta 25 sudurmosu lokaleko tentaziño handixenen partez!



Mikel Arrizabalaga Zuazok 11 urte bete ebazan urtarilaren 2an. Zorionak etxeko guztixen partez eta zaren modukua izeten jarraitu.



Amama **Milak** urtarilaren 4an bete ditu urteak. **Argik** eta **Iraidek** urtarilaren 11n. Zorixonak ta besarkada handi bat etxeko danon partez.



Zorionak, **Ainhize!** Moxu asko etxeko handienari familia osoaren partez. Ondo pasa eguna!



Hau bai hau bikotea, bata hamalaukoa hamabostekoa bestea. Amatzok, aitatxok eta Lurrek opa deusuegu poz-pozik bizitzea, urte mordoa hartzea eta maite zaituztenez inguratzea. Zorixonak, **Xuban** eta **Katrin!**

Eskelak



M^a Carmen Ibarra Alava

Zure seme-alabaren lagunak



Zure eskuetan fin-fin haria eta orratza
Guregan josita dago
zuk utzitako lorratza



Iñaki Jauregi Alberdi

Iurretan jaio zan
1965eko martxoaren 2an
Durangon hil zan
2017ko abenduaren 20an



Bere emaztea Marian Alberdi,
alaba Izaro eta beste senide guztiak

Uste gabeko agurrak triste
Etxean utzi gaitu gu
Itxaropen bidetik gagoz
Zure zain edo aiduru
Emon eta irakatsi dozunagatik
Gogoratuko zaitugu
Bihotzez maite zaitugulako
Gugan biziko zara zu



Jose Luis Kerejeta Retes

1943/03/16 - 2018/01/05

Burrundarie ta umorie
etxatazan inoiz falta
Trañe aldien sumauko jjuau
lagun hutsune galanta

“Kalijjeneko Angeluseko Lagunek”

Eguraldia

BARIKUA
10° / 4°

ZAPATUA
8° / 5°

DOMEKA
9° / 5°

ASTELEHENA
8° / 5°

MARTITZENA
8° / 5°

EGUAZTENA
12° / 8°

EGUENA
13° / 8°




Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagunak

Anbotoren lagunak



Anboto Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

Tel.: 946 816 558 • www.anboto.org
lagunak@anboto.org

AURREKO ASTEKO ZOKKETAREN IRABAZLEA

Eroski bidaiak-ek emandako
2 personentzako egonaldi bat

MARI CARMEN CHAVEZ

ZORIONAK!



CARREFOUReko 100€ko
BONU TXARTELAREN
IRABAZLEA

EDORTA
BERASALUZE

ZORIONAK!



“Bost kontinenteetako txanponak ditut gordeta; Europako herrialde guztietakoak eta Amerikakoak ere bai”

Hiru bidoi pezetaz beteta ditu Jabier Usabalek eta ez du asmorik erabiltzeko; Abadiñon jaiotako bildumazale elorriar honek antzinako hainbat tramankulu ere gordetzen ditu

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Elorrioko dendetan pezetekin ordaintzeko aukera dago oraindik, urtarilaren 31ra arte. Tona bat pezeta ditu bertako Jabier Usabalek, baina ez du asmorik horiek erabiltzeko. Duela 40 urte eta kasualitatez hasi zen pezetak batzen bildumazale hau. Antzinako objektuak eta munduko makina bat txanpon ere gordeta ditu.

Makina bat hedabideren ikusmina eragin duzu pezetekin joan den urte amaieran.

Bai. Pezetan kontu honegaz kokoteraino nago! (barrez). Abenduan eta urtarilean Elorrioko dendetan pezetekin ordaintzeko aukera dagoela eta sortu da istorio guztia. Ez dakit nola izan duten nire berri! **Ingurukoek, lagunek, esango zizuten zerbait.**

Ezaguna naiz Elorrion eta makina bat gauza esan didate. Adarra jo didate, bai, baina ez dit ardura.

Noiz hasi zinen, bada, pezetak gordetzen?

Izango dira 40 urte. Hala ere, as-

hasi nintzen. Gaur egun, tona bat pezeta izango dut, gutxi gorabehera. Hiru bidoi ditut beteta. Horietaz aparte, baditut beste batzuk ere. Horiek sailkatuta: bost ogerlekoko txanponak ditut, adibidez. 1944ko eta 1947ko txanpon gutxi batzuk ere baditut, Francoren garaikoak, eta 1966. urteko hainbat. Juan Carlos erregearen irudia duten txanponak ere mordoa ditut.

Euro batzuk egingo dituzte pezeta horiek guztiek...

285.000 pezeta inguru izango ditut; 1.700 euro inguru.

Ez duzu inoiz euroengatik aldatzeko gogorik izan?

Egia esan, ez. Zakukada bat bete nuenean pentsatu nuen diru hori, pilatutako pezetak, urtu eta neure busto bat egitea. Baina dirua ezin dela suntsitu esan zidaten, eta ideia baztertu nuen. Harrezkero ere jarraitu izan dut pezetak batzen, gaur arte!

2020ra arte baduzu oraindik aukera Espainiako Bankuan pezeta horiek euroengatik aldatzeko.

Bai, baina orain arte ere ez ditut aldatu, eta hortxe gedituko dira.

Txanponez ari gara, baina paperezko dirua ere badaukazu gordeta, ez da horrela?

Bai. Hala ere, ez dut diru-paper askorik. Pezeta batekoak ditut — 1953koa eta errepublika garaikoa, adibidez —, eta bost pezetako beste bat, 1948an landutakoa. Horrez gainera, hamar pezetako billeteak ere baditut, 1935ean sortutakoak, eta 1954an landutako 25 pezetakoa ere bai. 100 pezetakoak ere baditut hainbat; 1928an, 1953an eta 1965ean landutako diru-paperak dira horiek. 500ekoren bat ere gordeta daukat.

Bildumazalea zara? Bestelako gauzarik baduzu gordeta?

Bai. Antzinako hainbat gauza

ditut gordeta. 20 bat buztarri, arotzeriarako antzinako tresnak, argazki-kamera zaharrak, plantxak, kanpaiak, elizan banatzeko ostiak egiteko gailua, goldea, garai bateko elektrizitateko tramankuluak, irratia zaharrak... nik aurkitutakoak dira batzuk, eta besteak lagunek eta ezagunek emandakoak. Munduko hainbat herrialdeetako txanponak ere baditut.

Munduko txanponak?

Munduko bost kontinenteetako txanponak gordetzen ditut; herri guztietakoak igual ez, baina ia. Europakoak herrialde guztietakoak, eta Amerikakoak ere bai.

Zeuk ekarritakoak dira denak?

Asko, bai! Beste batzuk lagunek ekarritakoak dira. Urte bi bizi izan nintzen Venezuelen, eta Ipar Amerikan eta Hego Amerikan asko ibilitakoa naiz. Afrikan ere bai (Kenian, Tanzanian eta Zanzibarren), eta Europan: Islandian, Italian, Frantzian, Alemanian, Belgikan, Holandan...

Lauhortza

Ainhua
Olaso Sopelana
Ikaslea



Gabonetako egun bat, Durangoko harategi batean

Egun on. Egun on, bai. Gaur hotz esnatu da Euskal Herria! Benetan! Ez da ate horretatik sartu eguraldiaz mintzatu ez denik. Zera, gabonetarako Gorkari zer eraman begiratzera nator. Iazko pernila gutxiegi zela eta... haragia nahiago duela esan zidan aurrekoan telefonoz “ama, legatza gutxiago eta okela gehiago”! Ni ere antzekoa naiz, ba. Begira... pernila, 100gr, zortzi eurotan daukat eta oso goxoa dago. Bai, hori bera eramango diot, eman 500gr, hutsean bilduta mesedez. Gazta ere jarri, eta... hor dituzun solomo pusketak. Dena hutsean bilduta nahi duzu? Bai, mesedez. Bestela, ez dago sartzeko modurik, e? Ez dago, ez. Eta badakizu zer? Aurten azken urtea izango da. Azkena? Bai. Gero pisatu dena, mesedez. Etxean ditudan botilekin ia bost kilo ingurura hurbiltzen naizen. Justu ibiltzen gara urtero, baina ez pentsa, inoiz sei kilorekin ere utzi digute sartzten. Justu ibiliko zara orduan aurten ere, baina nolatan azkena? Frantziatik Espainiara lekualdatzen dute. Eta hemen badakizu... Akabo bisita luzeak eta gabonetako paketeak. Saint Maurren egindako urte piloak Espainiari ez dio balio... Azken pribilegio apurra aprobetxatzen ibiliko zarete ezta? Bai... Orain Zunbeltz irtengo da laster, badakizu? Bai, hauen afaritarako ere erretilu ederra prestatuko dut, pentsa, azken gabonak bera gabe. Eta irtengo diren eguna? Begira, 13 xanpain botila hauek gordeta ditut, preso dauden Durangoko burkideen ongietorri bakoitzeko bana. Ez dadila esan prest ez gaudenik! Madrilen eta Parisen entzun gaitzaten!

**Jabier Usabel
Arrizabalaga
Saskigilea
Abadiño | 1947**



paldian ahaztuta eduki ditut nik pezetak.

Eta nolatan hasi zinen?

Okindegira ogia eroatera joanda okinak ematen zidan eskuartekoa gordetzen hasi nintzen, pezetak gordetzen. Gero, lagunak ere hasi ziren poltsakadatxoak ekartzen. Hala hasi nintzen pilatzen.

Kasualitatez, beraz? Zenbat dituzu gaur egun?

Bai, kasualitatez. Zaku baten sartzten hasi nintzen, baina denak sartzten ez zirenez, bidoietan sartzen



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO • Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzeritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.

IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA: Urtarrilaren 15etik otsailaren 2ra

Matrikula egiteko ordutegia:
Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiralean: 09:00-13:00